



HEMEN ELKARTEA

Lankidetzan Hemen elkartearekin.



Lan mugikortasunari buruzko delphi azterketa Baiona-Donostia euro-hiriaren baitan

**Gaindegia
Behategia**

L.G.: SS-164-2008

otsaila 2008

Lan koaderno/Cuaderno de trabajos/Cahier de travaux

5

Egilea

- Aztiker

Zuzendaria

- Amaia Elizagarate

Landa lana


- Eneko Gorri
- Lur Etxeberria



Aurkibidea

I. Sarrera	7
1.1.1 Kokapena: ikerketa zabalago baten atal	7
1.1.2 Helburua eta azterketa gaiak	8
1.1.3 Planteamendu metodologikoa	8
II. Baiona-Donostia euro-hiriaren testuingurua	11
2.1.1 Euskal euro-hiria, gune berezia	11
2.1.2 Lisboako estrategia	12
2.1.3 Langileen mugikortasuna, bi egitasmo horien aitzinean	13
III. Merkatu ekonomiko ezberdinen osagarritasuna	17
3.1.1 Merkatu ekonomiko ezberdina	17
3.1.2 Jarduera ekonomiko eta lan merkatuaren osagarritasuna	21
3.1.3 Hezkuntza sistemaren osagarritasuna	24
3.1.4 Europako Batasuneko politiken bidetik oztopo administratiboak gaintutuz25	
IV. Mugikortasuna eragozten duten faktoreak	27
4.1.1 Muga mentala eta elkar ez ezagutzeak	27
4.1.2 Hizkuntzak	31
4.1.3 Lan merkatuen hertsitasuna	34
4.1.4 Lan merkatuaren kalitatea; lan baldintza ezberdinak	35
4.1.5 Hezkuntza sistema ezberdindu	39
4.1.6 Mugikortasun arazoak	39
4.1.7 Administrazioaren bultzada falta	40
V. Mugikortasunean positiboki eragin dezaketen faktoreak	45
5.1.1 Elkar ezagutzeko bideak ireki	45
5.1.2 Hizkuntza politika birplanteatu	47
5.1.3 Ikasketen baliokidetasuna bideratu eta osagarritasuna aldarrikatu	47
5.1.4 Jarduera ekonomikoa bultzatu	48
5.1.5 Lan merkatua kudeatzen duen sare bat eraiki	48
5.1.6 Azpiegitura sarea hobetu	49
5.1.7 Merkataritza sare bat bultzatu	49
5.1.8 Baiona-Donostia euro-hiriaren egitasmoan aurrera egin	49

5.1.9 Administrazioen konpromisoa bilatu	50
5.1.10 Langile eta eragileen ekimena	50
VI: Ondorioak laburbilduz.....	53
VII. Dokumentazioa	57
VIII. Eranskina: ikerketan erabilitako euskarriak.....	59
8.1.1 Adituei bidalitako azalpen gutuna	59
8.1.2 Galdera sorta	60



Lan mugikortasunari buruzko
delphi azterketa Baiona-Donostia
euskal euro-hiriaren baitan

2008/01/25



I. Sarrera

1.1.1 Kokapena: ikerketa zabalago baten atal

Gaindegia eta HEMEN elkarreak elkarlanean, Baiona-Donostia euro-hiriaren baitako lan merkatuak duen errealitatea eta honen bilakaeraren azterketa prospektiboa egiten jardun dira, Euskadi-Akitania funtsak emandako laguntzari esker. Egitasmo hau gauzatzeko lau lan ildo nagusi jorratu dira:

Lan merkatuaren argakia: informazio estatistikoaren lanketa.

Enplegu politiken azterketa

Ipar Euskal Herriko gazteen ibilbide laborari buruzko tokiko azterketa.

Eta, txosten honetan aurkezten dugun, lan merkatuaren inguruko adituen hausnarketa prospektiboa.

Lan hau Aztiker ikerketa enpresak burutu du Gaindegia teknikaen laguntzarekin eta Amaia Elizagarateren zuzendaritzapean. Landa lana, Eneko Gorri eta Lur Etxeberriak egina da.

Adituei egindako elkarrizketetan, hausnarketa galdera nagusi baten inguruan planteatu dugu: Etorrizunean erakargarria izango al da mugaz bestaldean lan egitea? Hau da, zer

gertatzea espero dugu? Non sortuko dira aukera nagusiak? Non zailtasunak? Enpleguaren erreformek galunduko al dute horretan? Eta ekonomiaren bilakaerak?

1.1.2 Helburua eta azterketa gaiak

Txosten hau, adituekin egindako elkarrizketen emaitza dugu. Aditu horiei hiru gai nagusiren inguruan galdegin diegu: Alde batetik, Baiona-Donostiako lan merkatua Europako Batasunaren Lisboako estrategiaren baitan kokatu dezaten eskatu diegu. Bestetik, Baiona-Donostiako lan merkatuaren bilakaeraz hausnarketa egitea eta, azkenik, egon daitezkeen formazio eta kualifikazio premien inguruan duten iritzia eskatu diegu. Gogoeta lerro horren bitartez ondorio nagusi baten inguruko hausnarketa egitea eskatzen genien: **Baiona-Donostiako herritarrentzat aukera bideragarria (formazio eta lan baldintzen aldetik) eta erakargarriagoa (beste aukera batzuen artean) izango al da mugaren beste aldean lan egitea?**

Horixe argitzen ahalegintzea dugu ikerlan honen helburu nagusi. Gai honen inguruko gogoeta une honetan egitearen egokitasuna inguru horrek bizi duen une berezian kokatu behar dugu.

Batetik, euro-hiriaren garapenak aukera berriak ekarriko ditu: zerbitzu berriak, azpiegitura berriak, herritarren mugikortasun handiagoa... Errealitate horretan kokatzeko ahalegina egin beharko dute enpresek, formazio erakundeek, lana bilatzeko zerbitzuek, instituzioek...

Bestetik, Lisboako Estrategiari jarraituz enpresen lehiakortasuna handitzeko politika berriek eragin zuzena izan dezakete egungo Baiona-Donostiako lan merkatuan (enpresen teknologia berrikuntza, lanpostu berriak, titulazio berriak lan merkatuan, emakumearen presentzia handiagoa jarduera ekonomikoetan, lanerako lanbide-prestakuntza politika berriak...).

Gaian sartu aurretik, azal dezagun, labor bada ere, ikuspegi operatibo batetik zer lan egin dugun eta zer prozedura jarraitu dugun:

1.1.3 Planteamendu metodologikoa

Guztira 11 adituekin egin ditugu elkarrizketak. Oro har, aditu guztiekin prozedura bera erabili dugu: lehenik galdesorta helarazi diegu posta elektronikoko bidez. Ondoren, telefono bidezko kontaktua egin dugu eta bi aukeren artean aukeratzeko eskatu diegu; beroiek galdera

sortari emandako erantzunak postaz guri helaraztea edo aurrez aurreko elkarrizketa egitea. Jaso ditugun erantzunak, azkenik, sistematizatu eta aztertu egin ditugu. Emaizak, txosten honetan bildu ditugu.

Elkarrizketatu ditugun adituak sektore hauetakoak dira: Enpresa mundua (2), Garapen agentziak (1), Garapen Kontseilua / Conseil du Développement (1), Ikertzaileak (1), Irakasleak (2), Kontseilu Orokorra /Conseil Générale (1), Baionako Merkataritza Ganbara (1), eta Sindikatuak (2).

Elkarrizketatu hauek mugaz bi aldeetako adituekin egin ditugu. Horiek lurraldean banatzerakoan, ordea, kontuan izan dugu Hegoaldeko lan merkatua dinamikoagoa eta handiagoa izatean, langileen mugikortasuna, ematekotan, Lapurditik Gipuzkoarako noranzkoan izateko aukerak handiagoak direla. Ondorioz, elkarrizketa gehiago egin ditugu Iparraldean Hegoaldean baino, lau eta zazpi, hurrenez hurren, Iparraldeko langileek eta ikasleek mugaz beste aldera mugitzeko dituzten aukerak eta oztopoak sakonago aztertu ahal izateko.

Teknika honek adituen identitatea babestea eskatzen du eta zenbait adituk horixe eskatu digute, beraz horrela egin dugu txosten osoan zehar. Jasotako erantzunak hitzez hitz adierazi baditugu ere, zenbaki batekin identifikatu ditugu norbanakoak.

Bukatzeko, eskerrak eman nahi dizkiogu egitasmo honetan parte hartu duten aditu guztiei, eskaini diguten arreta ezin hobea izan delako eta beroiek gabe horrelako proiektuak gauzatzea ezinezkoa suertatuko litzatekeelako. Txostenean zehar ikusiko duzuen moduan, askotan euren hitzak erabili ditugu aurkeztutako ideiak zabaldu eta azaltzeko garaian; hau horrela izan da, elkarrizketen kalitatea oso handia izan delako, eta aipatutako ideien garapena ezin hobea egin dutelako.



II. Baiona-Donostia euro-hiriaren testuingurua

2.1.1 Euskal euro-hiria, gune berezia

Baiona-Donostia euskal euro-hiriaren proiektua gorpuzteko prozesuak aldaketa nabarmenak ekarriko ditu datozen urtetan. Egitasmo honen helburua Baiona eta Donostiak barnebiltzen dituzten inguruetan gune metropolitano handi bat sortzea da; eta bereziki, azpiegiturak hobetzeko eta handitzeko, eta mugikortasuna errazteko egitasmoetan eta euro-hiriak eskainiko dituen zerbitzu komunetan gauzatuko da. Zentzu honetan, jadanik hasiak dira lehen pausuak ematen:

“Euro-hiriko [proiektua gauzatzeko] gure sistemak hain dira ezberdinak non lankidetzaz zaila den! Eta kanpotik badirudi ezer ez dela aitzinatzen. Hiru ardatz finkatu ditugu gure lehentasunetan: autopista jarria, ospitale lankidetzaz, drogen kontrako borroka. Bon, gero, bai, gure gaiari lotzeko, pentsatu genuen laugarren lehentasun bat finkatzea, baina denbora eskasaz baztertu dugu. Gaia zen ikerkuntza, formakuntza, unibertsitatea, diplomenera bateragarritasuna... Momentuz gai hau ez dugu landu!...” (Elkar.8)

Egitasmoa bere osotasunean gauzatzeak eragin handia izango du bertako paisaia, kulturaren eta ekonomian. Horregatik, dudarik gabe interesgarria izango litzateke eragin hauen inguruko gogoeta sakona eta eztabaida sustatzea. Gure gaiari dagokionez, berriz, zalantzarik gabe, aldaketa horietako batzuk enpresa eta enplegu mailakoak izango dira eta eragin handia izango

dute bertako ekonomia eta gizartean. Gu, bereziki, langileen mugikortasunaz aritu gara adituekin.

Lisboako estrategiaren helburu nagusietakoa enpresen lehiakortasuna handitu eta lanpostuen kalitatea hobetzea da. Euro-hiriari dagokionez, harreman eta mugikortasun handiko gune urbano bat ezagutuko dugu, non formazio eta enplegu gaitan bi administrazio desberdinen tradizioak elkarren ondoan biziko diren. Errealitate hori ongi uztartzen asmatuz gero aberasgarri izan daiteke euro-hiriko herritar eta enpresentzat.

2.1.2 Lisboako estrategia

Prozesu hau Europa eta Mundu mailan une oso berezi batean iritsiko da gainera. Europako Batasunean martxan den Lisboako strategiak enpresen lehiakortasun maila handitzea du helburu; horrekin batera, lanpostu berriak sortu, langabezia gutxitu eta kohesio soziala handitu nahi ditu, eta, batez ere, bazterketa arriskurik handienez bizi diren talde horietan eragin nahi da (gazteak, adineko langabetuak, emakumeak, etorkinak...). Lisboako strategiaren baitan oztupoak ere aipatzen dituzte gure adituek:

“Botere publikoen lehenasuna hazkunde ekonomikoa eta enpresen hobekuntza da, argi dago, baina aldi berean, ez dezala gatazka soziala erakarri. Baina aukeratu behar baldin bada, argi dago aukera.

Lisboako Estrategian, argi geratzen da enplegu politikak politika ekonomikoaren mende daudela; AEBko ereduari jarraitzen zaiola zuzenean. Lehenasuna politika ekonomikoak du nabarmen, eta horrek lana hobetzea ekartzen badu, hobe, baina aurrekoaren ondorioa izango da soilik.” (Elkar.7)

“Eta Lisboako Strategiak lortu nahi duena, Europa munduko buru-muina izatea da. Baina Europak ez duenez sekulan Asia bezainbat ingenerio ekoiztuko, ezagutzaren jendarte hau mugatua izango da. Ondorioz, Kalitatezko eta Berrikuntzazko industria bat behar dugu, Ezagutza baina.” (Elkar.10)

Lisboako Estrategia bere osotasunean gauzatzen bada, ordea, lan merkatuaren ezaugarriak nabarmen aldatzea ekarriko du, bai lan eskaintzari dagokionez, bai langileen kualifikazio eta lan baldintzei dagokienez. Lisboako strategiaren filosofian baitago lanpostuen kalitatea hobetzea; lanpostuek kualifikazioa handitzea; emakumea lan merkatu sartzeko neurriak ipintzea; langabezia estrukturala gutxitzea, adineko langabetuak lan merkatu sartzeko

programak areagotzea eta, gazteak lan merkatura arrakastaz bideratzeko ekimenak gauzatzea... Aldaketa hauek guztiak, Baiona-Donostia euro-hiriko garapenarekin batera, arras aldatuko dute euro-hiriko lan merkatua. Adituetako batzuk Lisboako estrategiak aukera guzti hauek ekarriko dituela zalantzan ipintzen dituzte, hala ere:

“Lisboari buruz. Europa, ezagutzaren ekonomia bilakarazi nahi da baina mediorik ez zaio ematen. Europak ez du mediorik. Ikerketa eta Goi mailako ikasketak ez dira sostengatzen. Eta hori gabe ez da helburu hau lortuko. Momentuz, Europa zerbitzuen ekonomian oinarritua da. Eta hori ez da ezagutza. Horrek malgutasuna eta prekarietatea eragiten du langileentzat. Nik ez dut Lisboako Estrategian sinesten.” (Elkar.10)

2.1.3 Langileen mugikortasuna, bi egitasmo horien aitzinean

Aipatu ditugun bi proiektu horiek aztertzen ari garen inguruko lan merkatuan eragin nabarmena izango dutela ukaezina da. Eragin hori ez da ordea lan merkatura mugatuko, inguru horretako ingurugiroan, bizitza sozialean, kulturean eta ekonomikoan ere aldaketak nabarmenak izango dira eta. Horiek guztiak aztertzeke ordea, ezinbestekoa eta interesgarria izango da azterketa berriak egitea eta zabaltzea. Guk adituekin landu dugun esparrua langileen eta ikasleen mugikortasunari buruzkoa da. Alegia, gure galdera nagusia errepikatuz: **Baiona-Donostiako herritarrentzat aukera bideragarria (formazio eta lan baldintzen aldetik) eta erakargarriagoa (beste aukera batzuen artean) izango al da mugaren beste aldean lan egitea?**

Orokorrean adituek baietz borobila eman diote galdera honi; halere, langileen eta ikasleen mugikortasun hori ahalbidetuko edo eragotziko duten aldeko eta kontrako faktoreak aipatzen dituzte guztiek, eta baita mugikortasun hori ahalbidetzeko hartu beharko liratekeen neurriak ere.

“Etorkizunean erakargarria izango da mugaz beste aldean lan egitea? Bai, bizitza eta lan esparrua zabaltzen baitzaigu. Gasteizen, Bordelen... bizi direnek ez dute honelako aukerarik. Baina aldi berean badakigu, eta azken urteotako euskal euro-hiriaren proiektuan frogatu da, ikaragarritzko oztopoak daudela: mentalitate ezberdinak, administrazio ezberdinak, beldurrak, konplexuak, aurreiritziak... ikaragarritzko pisua dutenak. Baina azkenean, nahiz eta hesiak jarri, ibaia itsasora iritsiko da. Hori gertatuko da. Ez dakit noiz. Azkarra edo motelagoa izan daiteke prozesua, baina horretan bultzatu beharra daukagu, ideologia guztien gainetik.”

Gazteentzat ikaragarritzko aukera da, bi aldetakoon bizitza aberastuko du, aukerak irekiko ditu... onuragarria izango da. Gero bakoitzak nahi duen bezala erabil dezala, hots, batzuk Euskal Herriak herri gisa duen nortasuna indartzeko erabiliko dute eta, beste batzuk, hobeto bizitzeko eta kitto. Baina onuragarria da edozein ikuspegitik begiratuta ere.” (Elkar.3)

Langileen mugikortasuna bilatzea eta ahalbidetzea, interesgarria eta egokia dela irizten diote adituek; batzuk ikuspegi praktikoa aipatzen dute, besteek nortasun eta herri ikuspegia azpimarratzen dute, baina gehienek, bi ikuspegiak azpimarratzen dituzte.

“Nire ustez, Europako edozein eskualdetan bezala, bestearekiko harremana edo irekidura biziki garrantzitsua da. (...) Baina hemen, bestelako errealitate bat bizi dugu: bi lurralde nazionaletan hedatzen den Euskal Herri bat badugu. Beraz horren atzean, irudi kolektibo eta afektibo bat gordetzen da. (...) Horregatik premiazkoa da mugikortasun horren sustatzea.” (Elkar.4)

“Mugaz gairik harremanak aipatzen direlarik, biziki abstraktua da hiritarrentzat. Politikoki hartzen badugu, abertzaleentzat ‘mugaz gairik’ hori, ‘Zazpiak Bat’ proiektuari lotzen da. Baina besteentzat, kontzeptu pragmatikoa da.” (Elkar.5)

“Euskaldun gisa erantzun dizut. Niretzat, ezinbestekoa da elkar ezagutzea. Gehienetan, besta munduan ezagutzen gera, baina gutxi arrazoi profesionalengatik. Pentsatzen dut nahastea garrantzitsua dela. Pentsatzen dut proiektu komun inguruan elkarrekin lan egitea garrantzitsua dela.” (Elkar.6)

Ondoren ikusiko dugun moduan, arrazoi pragmatikoak aipatzen dituztenean, bereziki, Hegoaldeko lan merkatuaren dinamismoa (lan postuak eta langileentzat aukerak sortzen dira Hegoaldean), eta Iparraldeko langileen kualifikazioa eta merkatuak eskaintzen dituen aukerak aipatzen dira.

“Lehen interesa pragmatikoa da! Uste dut ez dela garapen iraunkorrik gertatuko gure herrian, garapen industrialik gabe. Gure herriak, transformazio industria bat behar du! (...) Horri lotuta, zer da gure berezitasuna? Hegoaldean langileri formatua badugu. Iparraldean aldiz, buru-muinen ihes bat bada: ikasketak egiteko jendeak atzerrira joan behar duenez, atzerrian egiten dute lehen praktika eta gehienek han lortzen dute beraien lehen lana. Pertsona kalifikatu hauek ez dira herrira itzuliko, hemen ez baita enplegu kalifikaturik haientzat. Kompetibitate polo bat eskas dugu. Hori lortuta, Hegoaldeko enpresek interes bat izango dute Iparraldean: zango bat sartuz gure

lurraldean, esparru geografiko berri bati irekiko dira, hots Europako Iparra eta Afrika Iparra.

Bigarren interesa, sinbolikoa da! Mugaz gaindiko lan merkatu bat baldin badugu, koadro kognitiboa erabat aldatzen da. Mugaz bestalde begiratzten hasten gera eta horrek buruetan sarrarazten du “entitate bakar baten” ideia. Parisera begira egoteko ordez, Euskal Herria dugu erreferentzia.” (Elkar.10)

Mugen bi aldeetako merkatuaren mugikortasuna sustatzea interesgarritzat eta aberasgarritzat jotzen da, beraz, arrazoi ezberdinak direla medio. Europako Batasunean ere horrela ikusten dute agintariek eta politikak horretara bideratzen dituzte. Oraindik, ordea, ez da lortu Frantziar Estatuکو beste inguru batzuetan lortu den maila bereko mugikortasuna Baiona-Donostia ingurunean.

“Bi lan merkatu ezberdin direla uste dut. Eta ezberdinak izateaz gain, elkarri bizkarra erakusten diote! Ez dira, adibidez, Frantziar ezagutzen ahal diren beste lan merkatuak bezain integratuak; horren lekuko, errango nuke Frantzia Iparrean, Belgika inguruan, Haute-Savoie eskualdean edo Suitza inguruan... lan merkatuak askoz ere integratuagoak direla.” (Elkar.10)

“Frantses Estatu osoko mugen artean, gure eskualdean da mugikortasun profesionala gutxien. Zergatik? Nik ez dakit. Baina, konparatzen badugu Suitza eta Alemaniarekiko mugekin, argi da: lansarien erakaragarritasunak du hori eragiten! Noski. Hemen ez da hala.

Ondoko galdera da zein mugimendu nahi dugun? Iparraldetik hara, edo handik hona? Nik pentsatzen dut diagnostiko baten beharra badela: zein da gaurko mugikortasuna, zergatik hala den, zergatik nahi dugu mugikortasuna sustatu, zein diren trabak, zein da gure interesa... Baina oro har, gaur mugaz gaindiko mugikortasun biziki gutxi badugu.” (Elkar.8)

Halere, azken urteetan zentzu horretan egiten ari diren ahaleginak handitzen ari dira, batzuen ustez Europako Batasunaren bultzadari esker, beste batzuk ordea, moda berri bat besterik ez dela uste dute eta ez direla benetako ahaleginak egiten.

“Duela 25 urte ez zela mugaz gaindiko harremanen ikuspunturik. Inork ez zuen horren interesa garai hartan. Europaren eraikuntzarekin eta gure eskualdearen kokapena ikusirik (Pirinio Atlantikoen departamendua, 3 komunitate autonomoen auzoa da) postu hau sortzearen beharra sentitu zen Kontseilu Orokorrean. Postu horrek, bi

helburu zituen: gure auzokoekin partaidetza instituzionalak bultzatu alde batetik eta bestetik INTEREG II Europar programaren inguruan lan egin.” (Elkar.8)

“Batzutan zaila da muga hori desagerraraztea. Urrats bat aitzina eta beste bi gibelera. Biziki zaila da eta batzutan desesperagarria da niretzat. Baina denbora berean (eta hor errango dudana biziki pertsonala da) ‘Mugaz Gaindiko Kooperazioa’ modan da. Asko aipatzen da, asko entzuten da, politikari eta ikerlari askok erabiltzen duten kontzeptua da. Itxura ona ematen du. Baina askotan hitz ederrek ez dute mediorik ekartzen. Eta guk behar duguna proiektuen gauzatzeko medioak dira.” (Elkar.8)

Beraz, etorkizunean erakargarria izango ote da mugaren beste aldean lan egitea? Aipatu dugun bezala, faktore anitzek eragina dute eta izango dute, batzuk mugaren bi aldeetan lan munduaren mugikortasuna ahalbidetu, bultzatu eta indartuko dute, besteek aldiz, mugikortasunarentzat mehatxu eta freno izango dira. Aztertu ditzagun adituek aipatutakoak.

III. Merkatu ekonomiko ezberdinen osagarritasuna

Aditu gehienak ados dira mugaren bi aldeetako merkatuen ezaugarriak arras ezberdinak direla; hau, alde batetik desabantaila den arren, gehienek bi merkatuen arteko osagarritasuna ere aipatzen dute.

3.1.1 Merkatu ekonomiko ezberdina

Mugaz bi aldeetako lurraldearen ezaugarriak ezberdinak direla ukazina da, bi administrazio ezberdinen pean garatu diren merkatuak dira eta, horrekin batera, bilakaera ezberdina izan dute, eta egungo egoera ere oso ezberdina da.

Ezberdintasun hauek esparru ezberdinetan ematen dira, eta horrela laburbiltzen dituzte adituek:

- a) Jarduera ekonomiko ezberdina: Hegoaldean, Donostialdean zehazki, Zerbitzuen sektoreak geroz eta indar handiagoa badu ere, industriaren inguruko jarduera ekonomikoak pisu garrantzitsua du. Fabriketan lan egiten du, bertako langile askok. Iparraldean, berriz, orokorrean laborantzaren pisua garrantzitsua izateaz gain, zerbitzuetan espezializatutako ekonomia da nagusi; batez ere, osasun eta turismoaren inguruan. Industriak, erlatiboki, ez du hainbesteko pisurik Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoan.

“Nik, egiturazko ezberdintasunak ikusten dizkiet bi lan merkatuei. Hegoaldeko ekonomia (eta bereziki Gipuzkoan), ‘transformazio industrialeko bigarren sektoreko’ ekonomia bat da (ikus metalurgia). Nahiz eta kalitatezkoa izan, lehen sektoreko ekonomia gutxiengoa da. Eta hirugarren sektorea besteen arabera da, salbu Bilbo inguruan den finantza mundua.

Iparraldean, metalurgia garrantzitsua da ere (Sagem, Turbomeca...). Lehen sektoreak badu garrantzia handia; kalitatea ekoizten dugu (ikus AOC, labelak, biologikoa...). Baina Iparraldea biziartzten duen, zerbitzuen ekonomia da! Zer dira zerbitzu hauek? 1) Osasun zerbitzuak. 2) Turismoa. Tokiko turismoa, Frantziari zuzendua da eta masaturismoaren hautua egin du. Turismo berde edo eko-turismo gutxi bada. Kontraesan bat da niretzat.” (Elkar.10)

“Egitura sozio-ekonomikoa ez dela berdina. Hegoaldeko egitura industrial da, formakuntza ezberdina da, konpetentziak ezberdinak dira, lanarekiko harremana ezberdina da (...) Deskribapenean segitzeko, historikoki gure egitura [(Iparraldean)] tradizionala eta baserritarra da. Horrek ez du kentzen industriak eta kooperatibak badirenik, baina ezaugarri bat azpimarratu behar banu, hau azpimarratuko nuke.” (Elkar.4)

“Hegoaldeko errealitatea Industrial da. Industria ardatzean diren enpresa txiki eta ertain asko daude. Fabrikara doan auzo bat dugu, gu ere fabrikara goaz eta aita ere behargina zen fabrika batean. Fabrikaren kultura da! Hemen aldiz, inork ez du fabrikari lan egiten.

Gure kultura, RTT-a da [lan denboraldiaren murrizketa]. Turismoa, surfa, zerbitzuak. Horretan da ezberdintasuna. Baina oztopo edo desabantaila hori, abantaila bilakarako behar dugu.” (Elkar.6)

b) Merkatuaren tamaina ezberdina: Hegoaldean merkatua zabalagoa da. Jende gehiago bizi da eta ekonomia dinamikoagoa da. Iparraldea, berriz, mugatua da alde horretatik, biztanle gutxiago bizi da bertan eta merkatua ere mugatuagoa da.

“Iparraldeko lurraldea mugatua da: azalera txikia! Beraz lan merkatua aipatzea ere zaila da. EAE-n 2 milioi dira. Hemen 250.000 bakarrik. Beraz goi mailako konpetentziak dituen gazte batek zailtasuna asko izango du hemen lan baten atzemateko. Arazoa ez da gure ekonomia txarra denik, arazoa da 250.000 biztanleko lan-merkatu txiki batean ezin direla konpetentzia guztiak asebetu. Kasu, konparaketarik ezin da egin Iparraldearen eta Hegoaldearen artean. Baina orokorrean, gazte diplomatuek bi

aukera ditu: edo herrian egon eta bere kompetentzien azpian den lan bat onartzen du, edo bere kompetentzien arabera lan bat aurkitu baina herritik kanpo.” (Elkar.4)

c) Ikerketa sustatzeko aukera ezberdina: Egitura ekonomikoarekin eta jarduera ekonomikoen dinamismoarekin zerikusia duen beste faktore bat ikerketarena da. Lisboako estrategian ikerketari eta ezagutzaren merkatuari garrantzia berezia ematen zaiola ikusi dugu. Adituen ustez, Hegoaldeak unibertsitatea eta enpresa elkarteak izanda, abantaila bat du alde horretatik. Iparraldean, berriz, unibertsitatea ez egotean aukerak murriztagoak dira, nahiz eta egun eskola teknikoek lan garrantzitsua egiten ari diren.

“Ezberdintzen dituen beste ezaugarri bat da Hegoaldean ‘cluster’-ak sortu dituztela, hemen oraindik zer zen ez genekielarik. Cluster batean, sektore berdineko ikerketa zentroak, unibertsitateak eta enpresak elkartzen dira, bakoitzaren ekintza indibidualaren eraginkortasuna areagotzeko, informazio trukaketaren bitartez. Cluster-ek berrikuntza sustatzen dutela frogatua izan da eta jakinez berrikuntza garapen ekonomikoaren faktore dela, ulertzen da zergatik hain garrantzitsuak diren. Iparraldean aldiz, ez dugu unibertsitaterik, ez dugu ikerketa zentrorik eta dinamika horretaz oraindik urrun gara. [Izarbel teknopola salbu].” (Elkar.5)

d) Enplegu politika eta lan baldintza ezberdinak: bi estatu eta bi administrazio ezberdinetan banatuak dira mugaren bi aldeetako lurraldeak. Ondorioz, bietan aurkitzen diren enplegu politikak eta lan baldintzak ezberdinak dira. Hegoaldea, merkatua dinamikoagoa da, eta ondorioz, langabezia ere txikiagoa. Iparraldean berriz, lan baldintzak orokorrean hobekiak dira Hegoaldean baino; langabetuak babestuagoak, lan ordu berezi gutxiago, enplegu iraunkorragoa, etab.

“Lan merkatu arras ezberdinak badirela Euro-hiriaren baitan. Errealitatea ala da. Bi administrazio ezberdin ditugunez, bi sistema ezberdin dira lan merkatuaren kudeaketan, langabeziaren trataeran eta formazio profesionalean.” (Elkar.4)

“Bai, noski. Gure praktika profesionalak arras ezberdinak dira. Adibidez, lan denbora ez da berdina mugaren bi aldeetan. Eta lanarekiko harremana ere ez da berdina. Euskadiko birbanaketa sistema ez da gurea bezalakoa. Eta ondorioz, langile bat kanporatua delarik eta beste lan bat xekatzan duelarik, ez du hemen bezainbat laguntza eskuratzen. Horrek zer eragiten du? Ba langabetuak beste lan bat azkar atzematearen beharra!

Bukatzeko, ordu gehigarrien kopurua ere adierazgarria da. Hegoaldean, hemen baino ordu gehigarri askoz gehiago egiten da! Horrek, lanarekiko harreman berezi bat suposatzen du.“ (Elkar.9)

“Lan merkatuan ezberdintasunak daude. Hasteko, zatiketa administratiboek eragiten dituzten Ipar/Hego ezberdintasunak. Ezberdintasun hauek, politika fiskaletan eta politika ekonomikoetan oinarritzen dira.” (Elkar.5)

e) Lanarekiko harreman ezberdina: enpresa-kultura ezberdinak dira mugaz bi aldeetan, eta horrek eragin zuzena du batzuk eta besteak lana ulertzeko moduan. Lanarekiko harremana ezberdina da langileen artean; Hegoaldean, lan esparrua eta esparru pribatuaren arteko bereizketa gutxiago ematen da (lan denbora, eta familia eta aisialdiaren artean); Iparraldean, berriz, guztiz banatuak agertzen dira bi esparru horiek.

“Han, enpresa ez baita hemen bezala ikusia. Enpresa aipatzen delarik, sozietateari pentsatzen da. Enpresan lan egiten da, harremanak estutzen dira, formatzen da... Bigarren etxe bat da. Laburbiltzeko, hango kultura transbersala eta integratua dela errango nuke: ikuspegi orokorra dute. Gure kultura, ikuspegi frantsesa da: ikuspegi bertikala eta ez integratua. Azkenean, hemen gai ekonomikoa tabu bat da.

Hemen gauzak bereizten dira: lana alde batetik, aisialdia bestetik. Iruditzen zait Hegoaldean mundu guztiak gurutzatzen direla: jendea bere denbora librean formatzen da, harreman ekonomikoaren parte bat sare pribatuan egiten da, bizi soziala biziki azkarra da... Gure ikuspegia klasikoa da: gure lanak lansari bat ekartzen digu, lansari horrekin aisialdiak ‘kontsumitzen’ ahal ditugu eta etxeak badu garrantzia asko. Espazio pribatuak espazio publikoa baino garrantzia gehiago du guretzat. Eta munduak ez dira inolaz ere ez gurutzatu behar” (Elkar.4)

Hala ere, aditu batzuk aipatzen dute azken batean ezberdintasun horien guztien gainetik, badagoela bi merkatuak berdintzen dituen ezaugarri bat. Hots, badira postu batzuk, non lan esku premia dagoen, bai mugaren alde batean eta baita bestean, baina postu horiek betetzeko langile falta dago. Arazo honen aurrean batzuek eta besteek ordea irtenbide ezberdinak topatzen dituzte, baina elkarrenganako hermetikoak izanda; hau da, merkatua immigrazioari irekitzen zaio eta ez mugaz beste aldeko langileei.

“Lan merkatura itzultzeko, nik uste dut aski berdinarak direla. Desberdina dena, erantzun teknikoak dira nire ustez. Zertan berdinarak diren? Gipuzkoan edo Iparraldean, industriarako lan esku profesional eta tekniko baten eskas gorria bada! Hori, argi eta garbi da. Horretan antzekoak gera. Lan eskaintza batzuk badira, baina kandidatek

gutti. Beraz, postu huts asko. Arazo berdinak ditugu. Zerbitzuen kasuan, gu bezalako arazoak dituzte. Izan dadin enpresei edo pertsoneri zuzendutako zerbitzuetan, arazoak baditugu.

Arazo hauen aitzinean eman den erantzuna ezberdina da aldiz. Haiek, espainol hiztunen inmigratioari dei egin diote. Aski da Donostiako ostatu eta komertzio txikietan diren etorkin latino amerikarren kopurua ikustea. Gure kasuan, ez da batere hala. Zailtasun gehiago dugu postu huts hauek betetzeko.

Baina orokorki, errango nuke ezberdintasunak ez direla uste dugun bezain handiak. Aldiz hermetikoa da. Eta horretan da arazoa. Zergatik hermetikoa da? Zergatik ez da mugaz gaindiko mugikortasun profesionalik? Aski da frantses hiztun kopurua ikustea Hegoaldean eta euskal edo espainol hiztun kopurua Iparralde honetan. Bada arazo eta zailtasun bat.” (Elkar.9)

3.1.2 Jarduera ekonomiko eta lan merkatuaren osagarritasuna

Aipatu ditugu mugaz bi aldeetako jarduera ekonomikoan eta merkatuan adituek azpimarratu dituzten ezberdintasunak. Mugaz bi aldeetako mugikortasuna ahalbidetzeko garaian ezberdintasun hauetako batzuk oztopo izan daitezkeela ikusiko dugu hurrengo atalean. Halere, iritzi orokorra da, ezberdintasun hauek aukera ere badirela; eta, bi lan merkatuak zentzu askotan osagarriak direla azpimarratu nahi izan dute adituek.

“Erakargarritasunaren galdera pausatuko dugun momentuan, ez dugu ikuspegi integraturik izango. Iparraldea erakargarria izango da Hegoaldearekiko. Eta alderantzizkoa. Baina ez dira bortxaz konparatu behar. Osagarriak izan daitezke. Idealean, normala izan behar litzateke erakargarria baino. Galdera da: nola lortu erraztasun natural hori? Belaunaldi arazo bat da. Eta biziki gai sakona da. Ez da aldarrikatzen, eraikitzen da.” (Elkar.4)

“Kalifikatutako langile batentzat, askoz aukera gehiago bada Hegoaldean. Lan merkatuaren egitura halakoa da. Hemen, ez dugu perspektibarik. Beraz lan ona egin nahi duenak, muga zeharkatu beharko du etorkizunean.” (Elkar.5)

Alde batetik, mugaren alde batean eta bestean betetzen ez diren postuak beste aldeko langileekin betetzeko aukerak handiak direla aipatzen da. Baina, batez ere, Hegoaldeko lan merkatua dela dinamikoa eta zabala aipatzen da, eta aukera handiak eskaintzen dituela

Iparraldeko langileak bertan lan egiteko; aukera anitzak eskaintzen ditu, lanbide ezberdinak, lanpostu dezente, etab. Iparraldekoentzat hurbiltasunagatik eta aukera ezberdinengatik lan egiteko aukera naturala eskaintzen du.

“Lan indarraren beharraren aldetik, badakigu Hegoaldea eskasean dela. Horri aurre egiteko, inmigrazioaren hautua egin dute. Gasteiz bezalako hiri batean, inmigratu tasa %1-etik %7-ra pasa da 8 urtez. Inmigratuek dituzte okupatzen bertakoek hutsik utzitako lanpostuak. Haiek gabe, makina ekonomikoa mantsoago ibiliko zen. Inmigrazioari esker, Espainiaren hazkunde tasa %0,9-z hobetua izan da. Hurbileko inmigrazioari esker ere arazo hauei aurre egiten ahal diegu.

Bestalde, hemen baditugu behar espezifikokoak kultura, irakaskuntza eta kazetaritza arloetan bereziki. Horregatik SEASKA bezalako sareetan, Hegoaldeko langileak enplegatzea behartuak dira. Konpetentzia linguistikoa zein profesionalak dituzte pertsona hauek.” (Elkar.5)

“ (...) Hobe hara joatea. Kopuruz eta kalitatez, postu askoz gehiago eskaintzen dira Hegoaldean. Pertsona gehiagok aurkezten du bere burua, baina oro har, aukera gehiago bada. (...) dena handiagoa da han: instituzioak, masa kritikoa, konpetentziak, aukerak, enpresen tamaina, merkatuak... Baina beti ere postu kalifikatuentzat! Beste kasuetan, ez da bortxaz egia.” (Elkar.5)

“Hegoaldeko enpresek enplegu galdeak egiten dizkigute askotan. Heien beharra komertzialak dira. Sare bat garatzeko gai diren eta euskara, espainola eta frantsesa hitz egiten duten komertzial autonomoak behar dituzte. Behar gorria gainera. Eta zailtasun asko dugu lanpostu hauen betetzeko. Errealitate problematikoa da! Garai hauetan, bi proiektu ditugu Hegoaldeko enpresekin. Eta perfila egokia duten ikasleak baldin baditugu, konkretuki bi enplegu oso sortu behar lirateke. Eta ez da lehen aldia. Beraz, errango nuke, beharra badela.” (Elkar.6)

“Bai. Dudarik gabe bai! Alde batetik lansariarengatik. Bestalde enplegu hobekuntza aukera gehiago baita. Eta Hegoaldeko garapen maila ikusten delarik, ez da eztabaidatzerik. Han, gauzak gertatzen dira. Han, gauzak mugitzen dira. Gazte batek zerbait egin ahi badu bere bizian, proiektu bat gauzatu nahi badu, han aukera izango du. Hemen baino askoz gehiago bederen. Hemen, mendiak altxatu behar dira. Han zubiak badaude. Hegoaldea mugimenduan da eta horretan da ezberdintasuna.” (Elkar.6)

“Hasteko, han [Hegoaldean], enplegatzeo neurrian diren enpresak askoz gehiago dira. Beraz eskaintza, askoz handiagoa da han.

Bigarrenik, lanbideen arabera, ezberdina izango da. Industrian lan egiten duen batek, eskaintza zabala eta kalitatezkoa atzemanen du Hegoaldean!

Segitzeko, hango enpresak, hemengoak baino askoz internazionalizatuagoak dira. Horrek zer ekartzen du? 23 urteko diplomatu batek lana xekatzen badu, nazioarteko enpresa batean lan egitea izango da bere interesa. Holako enpresa batek bezeroak baditu mundu osoan zehar. Irekidura berri bat da eta lanbidez hobetzeko ate bat ere.” (Elkar.9)

Aldiz, Hegoaldetik Iparralderako lan merkaturatze bidea zaila ikusten da, bertako lan merkatua oso txikia delako batez ere.

“Oso lan merkatu txikia da guretzat. Gipuzkoa Iparraldea baino hiru aldiz handiagoa da biztanleen aldetik, eta ekonomia jarduerari dagokionez agian gehiago.” (Elkar.3)

Iparraldeko merkatuak Hegoaldekoari eskaintzen dizkion abantailan beste maila batekoak dira. Fluxuaren zentzu horretan, batez ere, Hegoaldeko enpresariak ahalbidetu ditzaketen abantailak aipatzen dituzte adituek; Iparraldean merkatari onak dira eta bertako merkatuak Hegoaldeko produktuei mundura zabaltzeko aukera onak eskaintzen dizkiete; elikagaien sektorean ere aukerak handiagoak dira Iparraldean, etab.

“Nik uste dut, jarduera ekonomikoari dagokionez, osagarriak izan gaitzkeela bi aldeak. Hemen inbertitzeko ahalmena dago, dirua dago eta baita populazioa ere, eta bertan beste baliabide batzuk dituzte: oso merkatari onak dira, gu baino hobek, turismoa ere landu dute (nahiz eta alde kaltegarriak izan), gainera badaukate Frantzia osoan oso ezaguna den marka turistikoa, Cote Basque, eta gu ere euskal kostaldea gara. Merkatu berri batzuetara iristeko aukera eskaintzen digu” (Elkar.3)

“Eta etorkizunean, eraikuntza ekologikoen merkatua garatu beharko litzateke Iparraldean. Han, jadanik aurreratuak dira [Hegoaldean]. Beraz imajina dezakegu errazago izango dela guretzat haiekin lan egitea. Alderantziz, agro-alimentarioan Hegoaldean baino hobekak gara; konpetentzien partekatze bat gertatuko al da behin? Ez dakit. Baina beharrezkoa dela pentsatzen dut. Turismoa, nekazaritza, industria aeronautikoa... dena sar daiteke horretan” (Elkar.4)

“Hegoaldeko errealitatea Industrial da. (...) Fabrikaren kultura da! Hemen aldiz, inork ez du fabrika lan egiten. Gure kultura, RTT-a da [lan denboraldiaren murrizketa]. Turismoa, surfa, zerbitzuak. Horretan da ezberdintasuna. Baina oztopo edo desabantaila hori, abantaila bilakarazi behar dugu. Azkenean, zerbitzu komertzialek

badute etorkizun eder bat. (...) Oxigenoa ekartzen dio ekonomia eta enpresari. Alta, euskal mugimenduan, lotsagarria jotzen den ekintza da salmenta. Aski da ikustea ikastolatik ateratzen diren ikasleen artean, zenbat sartzen diren gure IUT-an. Biziki gutxi dira. Aurreiritzi horren aldatzeko garaia da! Zeren eta besteek ez dituzten kapazitateak dituzte (hizkuntzarena adibidez) “ (Elkar.6)

Badago mugaz bi aldeetan merkatu natural bat, eta merkatu horrek eskaintzen dituen aukerak baliatu behar dira. Aditu batzuen ustez, mugen bi aldeek lan komunitate nahikoa naturala osatzen dute, alde batetik, hurbiltasun geografikoagatik eta baita hurbiltasun kulturalagatik ere.

“Nafarroako Erriberak edo Xiberoak, Bilbo edo Donostia bezalako zonalde populatueta beraien produktuak saltzeko gune naturala aurkitu dezakete. Hurbila eta salmenta askorako guneak izan daitezke” (Elkar.2)

“Adibidez, hemengo produktuen salmenta, Europari begira, Iparraldetik egiteak asko lagundu gaitzake, elikagaien industrian. Oso sektore berritzailea izan daiteke; oso berritzaileak izan gara Euskal Herrian sektore horretan.” (Elkar.3)

3.1.3 Hezkuntza sistemaren osagarritasuna

Lan merkatuaren osagarritasunaz gain, badago mugaz bi aldeetan potentziatu beharko litzatekeen beste osagarritasun bat; ikasleen mugikortasunari dagokiona. Mugaz bi aldeetako ikasleek elkar harremana ahalbidetzen bada, geografikoki hurbil, aukera anitzak eta ezberdinak aurkitu ditzakete. Eskaintza, bai unibertsitate mailan eta baita eskola teknikoetan mugen bi aldeetan bizi diren gazteen beharrak asetzeko adinakoa baita.

Eta eskaintzen den irakaskuntza hori gainera, kalitatezko irakaskuntza bat dela ere azpimarratzen dute adituek; horren adibide, Iparraldeko ESTIA eta Hegoaldeko Arrasateko unibertsitatea ipintzen dituzte, besteak beste.

“... Arrasateko adibidea har dezagun. Nik batasun mota bat ikusten dut hango unibertsitate, enpresa eta lurraldearekiko atxikimenduaren artean. Eta ezaugarri hori ez dut atzematen hemen.” (Elkar.4)

Bestalde, mugaz bi aldeetan bi hezkuntza sistema ezberdin egoteak ere bere abantailak badituela aipatzen du aditu batek. Mugaren alde bateko eta besteko ikasleek trebetasun eta

jakintza ezberdinak garatzen dituzte eta hori, elkarrekin lan eginez, aberasgarria izango da batzuentzat eta besteentzat.

“Formakuntza profesionala baino gehiago, nire ustez arazoa unibertsitate programetan (Curriculumetan) da. Bi sistemetan ez ditugu kompetentzia berdinak baloratzen. Hegoaldean, talde lan asko egiten da. Frantzian gutxi. Hegoaldean, lanen ahozko aurkezpen asko egiten da. Frantzian gutxi. Hegoaldean, informazioa bilatzen ikasten da. Frantzian gutxi. Hegoaldean, ikasleak izpiritu kritikoa du, parte hartzen du bere klasean, gogoetatzen du. Frantzian gutxi.

Aldiz, Hegoaldean, idazlan lanetan eskasak dira. Frantzian ez. (Pentsamendu bat egituratu, arrazonamendu bat garatu...).

Eta errealitate horrek badu eragin bat lan munduan. Jakinez ez ditugula kompetentzia berdinak, interesgarria da elkarrekin lan egitea. Horrela, bakoitzaren puntu azkarrak eta ahuleziak ezagutzen dira eta hauei esker hobetzen gara denak.” (Elkar.5)

“Lanaren ibilbidearen aldetik segitzeko, ikasketa mailaren arabera errealitateak ezberdinak dira. Hemen, Baxoa [batxilergoa] + 3 urte da ikasketa ibilbide klasikoa. Eta horrekin, biziki zaila da Hegoaldean lana atxemaitea. Han, Baxoa + 5 maila eskatua da [Lizentziatura]. Aldiz, ikasketa profesionalen aldetik, ongi kokatzen gara. Eta asko galdetzen dute gure formakuntza profesional maila. Gure gazteek praktika asko egin dituzte, enpresa mundua ezagutzen dute... Espainiar estatuko beharrei erantzuten dien perfila dugu. Beraz aukerak badaude, baina ez dira gauzatzen.” (Elkar.6)

3.1.4 Europako Batasuneko politiken bidetik oztopo administratiboak gaindituz

Europako Batasunetik bultzatzen dituzten harmonizazio politiken bidez, muga eta oztopo administratiboak gainditzeko urratsak ematen ari dira. Neurri hauek guztiak langileen mugikortasuna erraztuko dutela adierazi digute adituek.

“Baina hau guztia etorkizunean desagertzen joango da, Europako bateratze prozesuaren bilakaerarekin, “convergencia” deitzen denarekin. Soldatak, bizitza kostua... berdintzen joango dira” (Elkar.3)

“Hezkuntza sistemak oztopo dira lagungarri baino gehiago. (...) Europar Batasunak heldu dio gai horri, eta hor dago Europar akreditazio txartela, konbalidatzeko. Legez tresnak ipinita daude baina hezkuntza sistema ezberdinak beti oztopo dira.” (Elkar.7)

“Laborantzan ere gauzak ezberdintzen dira. Baina Europako harmonizazioak ezberdintasunak asko murrizten ditu. [Politique Agricole Commune] Eta laborantzaren gaiak Baiona-Donostia Euro-hiria ez du hainbeste hunkitzen, Baxe Nafarroan eta Gipuzkoa barnealdean mugatzen baita.” (Elkar.5)

IV. Mugikortasuna eragozten duten faktoreak

Aurreko puntuan mugaz bi aldeetako merkatuen ezaugarri eta osagarritasunaz aritu gara. Aditu guztiek langileen mugikortasuna handitzea desiragarria eta aberasgarria dela aipatu dutela azaldu dugu, baina egun badira mugikortasun hori eragozten duten faktoreak, eta etorkizunean ere eragina izango dutenak. Hauek guztiak kontuan izan beharko dira, langileen eta ikasleen mugikortasuna areagotu nahi bada.

Aditu batek jarraian aipatuko ditugun puntu gehienak laburbildu dizkigu:

“Nire ustez, lan merkatuaren arazo nagusiak ondokoak dira: 1) Egiturazko loturarik ez dugunez, ez dugu helburutzat lan merkatu bakar baten sortzea. 2) Jendearen buruetan, mugak indarrean izaten segitzen du. Koadro kognitiboa Frantzia da. 3) Azpiegitura eskasa bada, garraioetan bereziki. “ (Elkar.10)

Puntu honetan, horiek eta adituek aipatutako beste hainbat oztopo aztertuko ditugu:

4.1.1 Muga mentala eta elkar ez ezagutzeak

Badira bi faktore nola edo hala aditu guztiek aipatu dituztenak mugaren bi aldeetako langileen eta ikasleen mugikortasuna oztopatzen dutenak; muga mentala eta elkarrenganako ez ezagutzak, eta hizkuntza. Biak harremanetan dauden arren, guk bi zatitan aztertuko ditugu.

Adituen ustez, Estatuak beraien inertzia ezarri dute eta horrek ezberdinak izatera eraman gaituzte: *“Zatiketa eta partizio administratiboak eta politikoak, soziologikoki, kulturalki eta mentalki ezberdinak bihurtzera eraman gaituzte”* (Elkar.2) Ondorioz, Iparraldeko biztanleak Parisera begira bizi dira eta Hegoaldekoak, berriz, Madrilera. Mugaz beste aldeko lurraldeekin aldiz, *“muga mental”* bat eraikia izan da. Nahiz eta geografikoki gertu bizi, bi lurraldeen arteko distantziak handiak bihurtzen dituen; bai ikasketak aukeratzekoan, bai lan postuaz pentsatzekoan, edota salmenta esparruak ikertzerakoan.

Muga mental horren ondorioz, adibidez, Hegoaldeko industrialdearentzat eta sektore pribatuarentzat Iparraldea ez da existitzen; ez merkatua zabaltzerako orduan, ez langileak bilatzerako orduan, etab.

“Hots, mugaz gairik inkontziente kolektibo baten aitzinean garela ez da dudarik: kultura, hizkuntza, historia... komun bat bada! Baina errealtate administratiboa zatitzailea da. 800 kilometrotara joan naiteke, nire bizian ezer aldatu gabe. Aldiz Hegoaldera joan eta dena aldatzen da: sistema soziala, telefonoa, sareak...” (Elkar. 4)

“...kuestioa da mugak oraindik ez direla desagertu: muga legalak daude, muga administratiboak eta gure buruetan ere mugak ditugu. Guretzat beraiek ‘gabatxoak’ dira baina gu beraiantzat ‘afrikarrak’... Gu lan arloan Espainia mailan oso baloratuak izan gara, baina Espainiatik kanpo gu espainiarrak gara, gure produktua espainiarra da. Horregatik, mugikortasuna garrantzitsua da elkar ezagutzeko, hau guztia hausteko, aurreiritziak gainditzeko. Bestela ez dago elkar ezagutzerik. Eta ezagutzen ez denak beldurra ematen du, edota mespretxua... ez du gauza onik eragiten” (Elkar.3)

Eta muga mental horrek badu eragin zuzen bat, hots, Iparraldea eta Hegoaldea ez dira elkar ezagutzen; ez da ezagutzen mugaz beste aldeko hezkuntza sistema, ez da beste aldeko lan merkatua, bizimodua, etab. Eta ez-ezagutza horrek mugikortasuna oztopatzen du.

“Segitzeko, enpleguaren sarean ere zailtasunak ager daitezke: nola atzematen da lan bat? Non bilatzen da? Hemengo sareak ezagutzen ditugu. Hangoak aldiz ez.

Eta bukatzeko, formazio kulturala da. Beste aldean dena ez dugu ezagutzen oro har. Nola bizi dira? Nola ibiltzen da hango ekonomia? Zer dira hango enpresen berezitasunak? Nola ibiltzen da han? Ez-ezagutza da oztoporik nagusiarena.” (Elkar.4)

“Hizkuntzaren gibelean, ez-ezagutza eta ignorantzia gordetzen dira. Orokorrean, ez dugu bestearen potentzial ekonomikoa ezagutzen. Nor da kapaz, gaur egun, hamar

hitzez eta zenbakiz bere auzoaren deskribatzen? Gaur egun, sistema bertikal batean gera...” (Elkar.9)

“Eta Garapen Kontseiluko ikerketak argiki erakustera ematen dute: 1) Mugaren beste aldean gertatzen denaren inguruan ez-ezagutza handia badela. 2) Ekonomiaren egiazko aktoreak beti Parisera begira direla. 3) Ez dela berezko estrategiarik mugari begira.” (Elkar.10)

Aditu batzuen ustez, beti ez da erraza, gainera, mugaz beste aldeko informazio fidagarria lortzea.

“Eta biziki zaila da informazio fidagarria lortzea mugaren beste aldean lan egiten dugularik. Nire kasuan, ez nekien norengana jo ere. Komunikazio eta zerbitzu eskasa gorria bada. Eta askotan, nehork ez daki zure galderi erantzuten.” (Elkar.5)

“Hala ere, badirudi, maila handi batean ez-ezagutza eta inkomunikazioa dagoela.(...) Larriena da, guk ikusi dugula, erakunde publikoen artean, Bordelekoek azpimarratzen zuten, hango erakundeek (ez du esan nahi hemen hori gertatzen ez denik) ANPE eta ASSEDIC eta... bertako enplegu erakundeek eta erakunde hauetako arduradunek hemengo funtzionamenduari buruz daukaten ezjakintasun handia, hemengo enplegu agenteen funtzionamenduari buruz, hau da, INEM, Lanbide... Beraz, erakunde publikoen arteko ezezagutza hain handia bada, jendearen artean ezezagutza egotea are ulergarriagoa da.” (Elkar.7)

Urruntasun sentsazio horrek elkarrenganako arrotz izatera garamatza. Eta arrotza den horrek, beldur ematen du. Errazago zaie langileei, lan egitera eta bizitzera urrunago joan behar badute ere, Estatuan barruan mugitzea muga zeharkatzea baino. Ezagutzen dute sistema eta bizimodu batetara egokitzea errazagoa delako.

“Ez dut uste erakargarria denik gaur egun. Zergatik? Irudipen kolektiboa aipatuko nuke bereziki. Hegoaldeko errealtate soziala ez denez ezagutzen, ez gara ausartzen. (...) Lehen zailtasuna, beldurra da: ‘atzerrira joan beharrak beldurtzen nau.’ Koadroa aldatzea ez da eroso.” (Elkar.4)

“Oztopoak, asko dira. Alde batetik hemen dugun ‘goxotasuna’. Ez dugu ‘etxetik’ joan nahi [etxea zentzu zabalean aipatzen da]. Gure parekoen artean gera, gure erreferentziak hemen ditugu, gure kultura hau da... Baina espiritu itxi baten sinboloa da nire ustez. Ezberdintasunari ez dugu konfrontatua izan nahi.” (Elkar.6)

“Bai. Eta gaur ere erakargarria da. Baina jendeak ez daki. Jendeak nahiago du lan merkatu babestu baina mugatu batean egon, promozio aukera gehiago duen lan merkatu ezezagun batetara joan baino...” (Elkar.10)

Eta beste alde batetik, enpresariak ere ez dute mugaz beste aldeko errealitatea ezagutzen, ez dakite zein gaitasun dituzten bertako langileak, edo nora jo behar duten langileen bila.

“Hizkuntzaz gain, kalifikazio arazo bat bada. Espainiar sistemak frantses diploma bat ofizialki ezagutzea garrantzitsua da. Baina garrantzitsuagoa da oraindik ekibalentziak ezagutzea: Hegoaldeko industrial batek, CAP edo BEP bat zer den jakin behar du. Hezkuntza arazo bat da beraz.” (Elkar.10)

Muga mentalekin amaitzeko bada aditu ezberdinek aipatu duten beste errealitate bat, mugikortasunerako oztopo izan daitekeena. Iparraldean bereziki, hainbat erakunderen eta herritarren artean Euskal Herriaren ideiak beldur ematen duela.

“Beste errealitate bat bada, edo beste oztopo bat nire ustez. Aurreiritzi bat besterik ez da baina Euskal Herriak beldur egiten du! Ez da ezertan oinarritua, baina existitzen da. Euskal Herriak ez du Bartzelona edo Granada bezalako erakargarritasuna. Bartzelona, metropoli biziki erakargarria da. Baina Hego Euskal Herriak beldurtzen du.” (Elkar.6)

“Bordeleko irakasleek aipatzen duten gauza bat nabarmenduko nuke batez ere. Euskal gatazkak daukan pisua Iparraldean; baina ez Iparraldean bakarrik, baita Frantziar estatuan ere, hots, Hegoaldea nola ikusten duten. Mesfidantza dago itxuraz Jaurlaritzarekiko; (...) Hainbat sektoretan, bai Frantziar estatuan, bai Espainiar estatuan, euskal kultura eta izaera eta errebindikazio politiko identitarioei buruz dagoen ez-ezagutzak mesfidantza ekartzen du. Ez-ezagutza mesfidantzarekin lotua joaten baita gehienetan. Frantziako administrazioaren funtzionamenduan, esaterako, goi-funtzionarioak, hots, konfiantzazko karguak (suprefetak...) etengabe aldatu beharra dute, leku batean errotu ez daitezen, horrek dakartzan arazoak ekiditeko (korrupzioa edo mila arazo). Beraz, ‘Frantziako interes publikoa bakarra, abstraktua eta zati-ezina’ denez, komenigarri ikusten dute etengabe lekuz mugitzen aritzea. Beraz, Iparraldera, Bordelera edo Akitaniara, tarteka agintari politiko-administratibo sateliteak heltzen badira, ez dakit nondik etorriak, normalean euskal arazoak duten iritzia oso alde batekoa da, partziala, ezjakintasunean oinarritua. Eta badirudi elkar eragiteko orduan oztopo bat dela. (...) Aldiz, Aragoiko Pirinioetako eskualde jakin batean historikoki harreman ona izan dutela mugaz bi aldeek eta horrek oraindik ere izugarri eragiten duela egun egiten diren enplegu politiketan eta kulturatan... Hemen

kontrakoa, aipatutako mesfidantzaren ondorioz. Mesfidantza hau erakundeen artean existitzen bada, herritarren artean are handiagoa, sakonagoa, izango da.” (Elkar.7)

Eta muga mental hauek dira gaintzeko zailenak, jendearen kontzientzia mailako aldaketa eskatzen dutelako.

“Bai, denborarekin ezabatuko da muga hori. Baina beste aldagaiek ere laguntzen dute. Aldagai monetarioa hartzen bada adibidez, euroari esker muga bat hautsi da. Jarraipen geografiko bat sortu du Euroak. Arazoa, hizkuntzarena da: elkarrekin lan egiteko komunikatu behar baita. Beraz, Europak mugak fisikoak hausten ahal baditu tresna batzuei esker, ezin ditu muga mentalak hautsi eta hizkuntzak lantzea behartu! Laguntzen ahal du, baina ezin du gauzatu. Jendearen kontzientzia hartze bat behar da.” (Elkar.9)

4.1.2 Hizkuntzak

Bi lurraldeetan hizkuntza ezberdina hitz egitea oztopo handia da mugaz beste alderako mugikortasuna ahalbidetzeko garaian. Mugaz beste aldean hitz egiten den hizkuntza ez jakitea aurretik aipatu dugun ez-ezagutzaren kausa eta ondorio dela nabarmentzen dute adituek.

“1) Hizkuntzaren arazoa: Erregimen frankista pean bizi zen gure gurasoen belaunaldiak, frantsesa ikasten zuen kanpoko lehen hizkuntza bezala. (...) Gaurko datu soziolinguistikoak begiratzen baldin baditugu, ohartzen gara jendea ez dela gehiago Frantziara begira. Eskoletan, %5-ak bakarrik ikasten du frantsesa; gaur egun, ingelesa ikasten da lehen hizkuntza gisa. Horrek, zer arazo sortzen du? Belaunaldi oso batek ez du frantsesa menperatuko. Eta hemen ere berdin da. Espainola baino gehiago, gazteek ingelesa ikasten dute. Eta euskararen kasuan, egoera larria da. Datuen arabera, Hegoaldean, geroz eta gazteago izan geroz eta euskara maila hobea dute. Iparraldean alderantzizkoa da. Beraz euskara ez da komunikazio hizkuntza bezala kontsideratzen ahal; oraindik ez behintzat. Hizkuntza berdina ez hitz egiteak, kode kultural ezberdinak dakar, erreferentzia ezberdinak... Eta horrek ez-ezagutza eta ez ulertzea eragiten du. Eta horrek arazo larriak eragiten ditu truke eta harremanen mailan. Etorikizunean, 3 hizkuntza menperatzea sekulako abantaila izango da.” (Elkar.5)

“Momentuz, arazo nagusia hizkuntza da. Euskal Herriaren hizkuntza euskara baldin bada ere, 3 milioi biztanleen artean 600.000-k hitz egiten dute. Eta Iparraldeko egoera oraindik larriagoa da.” (Elkar.10)

Hizkuntzak menperatu ezker mugaren beste aldean lan egiteko aukerak ere biderkatu egiten dira dudarik gabe. Baina, ez bakarrik kalean moldatzeko hizkuntza mailan, lan merkatura sartu ahal izateko hizkuntza menperatu behar da, hizkuntza teknikoa alegia.

“Egia esan Iparraldekoentzat oso aukera erakargarria izan liteke Hegoaldean lan egitea baina Iparraldeko gazte gehienek frantses hutsean hitz egiten dute. Guk badaukagu langileen beharra baina beraienez ez dago aukerarik, ez baitituzte hemengo hizkuntzak ezagutzen. Euskara gutxi ezagutzen dute. Euskara dakitenek, berriz, gero eta aukera gehiago dituzte hemen lana aurkitzeko.” (Elkar.3)

“Bestalde, hizkuntza ere oztopo bat izan daiteke. Ostatuan jatekoa eskatzeko edo erosketak egiteko, hizkuntza menperatzen dugu. Baina ez da hizkuntza maila hori galdetua. Lan egiteko, maila altua behar da. Eta maila horren lortzeko, neurriak eskas dira. Horretarako ere adar elebiduna sortu genuen hemen.” (Elkar.6)

“Bestalde, errepikatzen dut: hizkuntz gaitasuna ere garatu edo hobetu behar da. Hizkuntzen maila ona behar dugu lortu gure gazteentzat. Eta uste dut Baionako unibertsitateak postuak sortu behar dituela arlo horretan. Zaila izango da, berriz ere, baina ezinbestekoa. Maila ona behar da, hiztegi egoki bat, hiztegi zientifiko bat. Azkenean, literatura lantzea espainolez, ongi da. Baina ez dugu hiztegi literario edo poetikoa erabiltzen saltzeko. Saltzeko hiztegi teknikoa behar dugu. Eta hori ikasten da. Ekonomiaren, industriaren, finantzaren, zientzien terminologia menperatu behar da. Bai espainolez, baita ingelesez! Bai, ingelesa beharrezkoa da Hegoaldean ere lan egiteko. Askok galdetzen dute. Ahantzi nahi den errealitate bat da, baina ingelesa, espainola bezain garrantzitsua da Hegoaldean lan egiteko. Euskara ahantzi gabe.” (Elkar.6)

Gainera, hezkuntza sistemak ez du egun, oraindik ere, auzokoen hizkuntza ezagutzea ahalbidetzen.

“Hizkuntzari dagokionez, hemen frantsesa ez dugu ezagutzen, inor gutxi hitz egiten du. Ia ia eskola guztietan ingelesa irakasten da. Nik ez dut ulertzen gu gauden tokian egonda nola litekeen frantsesik ez ikastea. Batez ere gure kasuan, mugatik hain gertu bizi garenon kasuan.....” (Elkar.3)

Baina, hizkuntza oztopo izateaz gain aukera ere badela aipatu digute aditu batzuk, batez ere Iparraldeko gazteen kasuan. Alde batetik, Euskara menperatzen duten edo ikastoletan ikasi duten ikasleek badute abantaila nabarmen bat. Euskara ezagutzen dute eta horrek Hegoaldera ikastera edo lan egitera joateko ateak irekitzen dizkiete. Eta bestetik, Euskara ezagutzeak

identitate sintonia bat eskaintzen die gazteei, eta hauen mugikortasuna errazten du. Halere, aditu hauek aipatzen dute ere, elebakarrak diren gazteei kontrakoa gertatzen zaiela, hizkuntza oztopo nabarmena izaten dela.

“Orain, gure haurrek beren baitatik joan behar dute Hegoaldera ikasketak egitera. Baina lkastoletako haur edo gazteek naturalki egiten dute momentuz. Besteek ez. Zailago zaie, hizkuntza arazoengatik bereziki (...). Eta Hegoaldean ikasten ez duen batek ez du Hegoaldean lan eginen. Edo zailago izanen zaio bederen.” (Elkar.6)

“Hizkuntza kategorikoki oztopo bat dela esanez etortzen dira eta, aldi berean, nik Hezkuntek egitasmoa azaltzerakoan hizkuntza lagungarri dela azaltzen dut. Zergatik? Hemen dauden errealitate sozio-linguistikoko ezberdinekin, hizkuntza erabateko oztopoa da eta lagungarria ere bai, bi gauzak. Ez da hizkuntza kontua edo kontu sozio-linguistikoa soilik; kontu identitarioa eta identitate politikoa ere eskutik doaz. Zeren normalean elebakartasunari lotzen zaio identitate kontraste nabarmena, hau da, elebakartasun frantses edo espainolari identitate kontrastea lotzen zaio, hots, identitate espainola edo frantsesa. Eta, aldiz, identitate euskaldunak kontrakoa ekartzen du, sintonia bat ekartzen du. Beraz, kontraste horren kontrakoa ekartzen du. Horregatik diot hizkuntza oztopo edo lagungarri den galdetzean bi erantzun zeharo ezberdin aurkitzen ditugula.

Kuantitatiboki neurtzen badugu, oztopoa dela esan genezake, hiru eledun gutxi daudelako baina batzutan kontrakoa da. Hala ere, badirudi hizkuntza, frantses eta espainiar elebakarren artean oztopo handia dela. Eta sektore honetan, hizkuntzaren oztopoari, neurri batean, kultura aurreiritziak gehitzen zaizkio. Eta kontrakoa gertatzen da euskaldunen artean. Bi errealitate hauek kontrajarriak direla esan genezake. Hizkuntza eta kultura, zer da, oztopo edo lagungarri? Batzuentzat erabateko oztopoa da eta, beste batzuentzat, zeharo lagungarria.” (Elkar.7)

Dena den, hizkuntza ez da beste eremu batzuetan oztopo gaindiezina izan, eta beraz, faktore hau beste batzuekin batera aztertu behar da.

“Eta bukatzeko, hizkuntza! Hizkuntzarena, egiturazko arazo bat da. Baina ez da gaindiezina. Frantzia Iparrean lortzen badute Frantsesa eta Alemaniarraren arteko ez-ulertzea gainditzen, guk ere lor dezakegu.” (Elkar.10)

“Mugaz gaindiko lan merkaturik ez da eskaintza eta eskaera ez baitira bateragarriak. Hegoaldeko enpresek ez dute Iparraldeko langileen beharrik eta alderantzizkoa ere ez! Errealitate horrek badu bere salbuespena: eraikuntzaren merkaturia. Sektore horretan,

hizkuntzaren oztopoa errazki gainditzen da merkatua krisian baita eta behar gorriak baitira. Horregatik Hegoaldeko langile asko Iparraldeko eraikuntza oletara lan egitera heldu dira. Beraz, INTEREG agentziak akordatzten dira maila horretan, baina merkatuaren behar gorri bati erantzuteko. Salbuespen hori salbu, ez dut beste loturarik ikusten. “ (Elkar.10)

4.1.3 Lan merkatuen hertsitasuna

Muga mentalengatik izan, ez-ezagutzagatik izan edo hizkuntza arazoengatik izan, kontua da, mugaz bi aldeetako merkatuak mugaz beste alderako hertsia direla aipatzen dutela adituek. Alde bateko lan merkatuentzat ez da beste aldea existitzen, eta beraz mugikortasun hori ez da planteatu ere egiten. Alde batetik, langileak beste merkatu batzuetara jotzeko ohitura dute (Estatuan bertan, beste lurralde batzuetara, edo Estatutik kanpo baina beste lurralde batzuetara), eta bestetik, enpresariarentzat ez da aukera bat bere beharrak asetzeko mugaz beste aldera jotzea.

“Gipuzkoarra, gainera, lana Gipuzkoan bilatzen saiatzen da, eta ezin bada, Hegoaldean. Eta hori ezin bada, denetik izaten da, batzuk atzerrira joaten dira, baina atzerrira joaten direnak berdin joaten dira bai Espainiara, bai Ingalaterrara, bai Estatu Batuetara. Espainian Hegoaldeko asko dago, egia esan, lanean. Baina ez dugu joerarik Iparraldera jotzeko, baina ezta Frantziara ere. Ez da Iparraldeko kontua bakarrik. Gainera, frantsesez ez badakizu, nekez lan egin dezakezu Frantzian. Bigarren hizkuntza gisa gehienek ingelesa dakite hemen eta hori muga bat da.” (Elkar.3)

“Esango nuke oztopo nagusiak psikologikoak eta kulturalak direla. Askotan jendeak ez du planteatu ere egiten. Planteatzea bera ere jada asko da, Iparraldean lan egitea aukera bezala pentsatzea. Hezkuntzek egitasmoaren inguruan aipatzen dute Iparraldeko gazte gehienei ez zaiela burutik pasa ere egiten hona etortzea, kasu honetan ez zuten esaten lan egitera, baizik eta goi-mailako ikasketak egitera, baina lanarekin gauza bera azken finean. Lehenengo oztopoa, beraz, hauxe da, aukera bezala planteatzearena. Mugak pisu handia du psikologikoki. Planteatzea bakarrik izugarritzko aurrerapausoa izango litzateke. Beraz, egun erakargarria al den galdetzen duzunean, kontua da aurrebaldintza hori, ez dela ematen. Aukera neurtzen ez bada, ezinezkoa da baloratzea erakargarria den edo ez.” (Elkar.7)

“Adibidez, inkesta fidagarri batek agerian eman du gaur egun 8.500 postu libre bazela Iparraldean. Denbora berean, 8.500 pertsonen lana xekatzen dute Iparraldean. Beraz,

mekanikoki langabezia deuseztatzeko baldintzak hor direla erran genezake?! Ba ez. Libre diren 8.500 enplegu guzti hauek ez dira denak denbora osokoak, ez dira denak mugagabeak... Beraz guk badugu arazo hori, mugaren beste aldean arazo berdintsua dute. Eta nik dakidanez, bakoitzaren beharrak asetzeko ezer ez da egina izan. Bakoitzak lan egiten du bere esparruan. Zergatik ez gara soluzioen bila joaten Hegoaldera.” (Elkar.9)

4.1.4 Lan merkatuaren kalitatea; lan baldintza ezberdinak

Aipatu dugun moduan Hegoaldeko lan merkatua anitza eta zabala da, Iparraldekoentzat erakargarria izateko modukoa, adituen iritziz. Arazoa, eskaintzen den enplegu horien kalitatean, eta gainditu beharreko oztopoetan dago. Hauek dira nabarmendu dituzten faktoreak:

a) Soldata ezberdinak: aditu gehienek Hegoaldeko soldatak orokorrean Iparraldekoak baino txikiagoak izateak mugikortasuna erakargarri izateko oztopo nagusien artean kokatu dute (Hegoaldeko soldata minimoa Iparraldekoaren erdia baino ez da). Are gehiago, Hegoaldean dauden aukera ezberdinen artean soldata txikiena duten sektore horietan lan egitekoak izanik ugarienak.

“...Kalitatean, ordea, ez da hain indartsua. Gertatzen dena da Gipuzkoa osoko ekonomiaren zutabeak nahiko zutabe zaharrak direla: jarduera tradizionaltan oinarritua dago, besteak beste, burdingintzan, altzairugintzan, industria metal-mekanikoan, eraikuntzan eta makina erremintan. Horrek eragiten du zerbitzu alorrean balio erantsi handiko zerbitzuen ordez, gutxi ordaindutako lanpostuak sortzea (ostalaritza, etxeko lanak, ongizate zerbitzuak...). Lanpostu hauetan nahiko gutxi kobratzen da eta gutxi kobratuz gero ezin bizimodua aurrera atera...” (Elkar.3)

“Egia da, soldata mailak ezberdinak direla. Adibidez, Frantzia gehiago kobratzen da. Bizitza kostua ere handiagoa da” (Elkar.3)

“Baina ez dira lansari apalago batentzat sartuko: Hegoaldean, lansari minimoa 580€-koa da. Hemen, batz bestean 1.200€-koa! Tarte hori erabakigarria da. Eta denek ulertu dute hori.” (Elkar.5)

“Ikusten da mugitu edo ez mugitzeko aldagai nagusia dela beste aldean (simetrikoki) soldata hobea izatea. (...) Jendea benetan mugiarazten duena aldagai ekonomikoa da.

(...) Eta, printzipioz Iparraldean soldatak altuagoak dira, oro har. Eta honela erakusten du gutxieneko soldatak, bikoitza eta pixka bat gehiago baita, oker ez banago, Frantziar estatukoa. Baina hor beste aldagai bat egon daiteke, hots, lan motak. Nahiz eta antzeko lanak Iparraldean soldata altuagoak eduki, industria arloko lan motarik ez badago, ezin dugu konparaziorik egin” (Elkar.7)

“Lansarien arazoa aipa dezagun: Frantziar, liberalizatzen ari den koadro babestu bat bagenuen. Baina hala ere, gure sistema oraindik biziki erregulatua da. Gure lansari minimoa, Espainiarena baino bi aldiz altuagoa da. Hala ere, ez dute askok lansari minimoa hunkitzen Hegoaldean. Baina bestalde, Hegoaldeko sistema gurea baino askoz ere liberalagoa da.

Horrek zer erran nahi du? Han, maila apalago batean hasten da baina lasterrago igotzen da. Promoziorako aukera askoz gehiago bada. Baina errealitate hori ez da ezagutzen; horregatik Hegoaldera lan egitera joatea ez da erakargarria. Zergatik joango nintzateke hilabeteen 800€ irabazteko? Gure lansari minimoa babeslea da eta babesturik egon nahi da.” (Elkar.10)

b) Lan postuen behin-behinekotasuna: Hegoaldeko lan merkatua Iparraldeko gazteentzat erakargarri ez izateko beste faktoreetako bat, Hegoaldean sortzen diren lanpostuen behin-behinekotasuna da. Iparraldean erraztasun handiagoarekin lortzen omen da egonkortasuna lanpostu batetan.

“Hegoaldeko lan merkatua biziki prekariora da: Lan kontratu mugatu asko dago, epe motzeko kontratu asko dago... Beraz errango nuke Hegoaldean, enpleguak ez direla seguruak eta lansariak apalak direla. Aski da ikustea EAE-n zenbat ‘mileuroista’ baden; ez dira denak enplegu ez kalifikatuak, badira ere Unibertsitatetik ateratzen diren diplomatuak (kazetariak besteak beste). Hegoaldeko lan merkatua, Iparraldekoa baino desregulatuagoa da! Gure enpleguak egituratuagoak dira, mugagabeko enplegu gehiago bada..” (Elkar.5)

“Hegoaldean, (...) oro har, aukera gehiago bada. Baina denbora berean, lanpostuaren behin-behinekotasuna lortzeko, denbora gehiago hartuko du han. Hemen, bi urte behar badira, han lau edo bost beharrezkoak dira lanpostu on baten gauzatzeko.” (Elkar.5)

“Hegoaldeko lan merkatuan badirudi ziklo ekonomiko positiboa dela eta, enplegu tasek joera positiboa dute. Hor salatzen dena, eta erabat ados nagoena, da ez desberdintzea enplegu egonkorra eta aldi baterako enplegua. Oso ezberdina da, langilearentzat noski, aldi baterako edo enplegu mugagabea edukitzea.” (Elkar.7)

c) Ikasketa maila eta enpleguaren arteko desoreka: Hegoaldean ikasketa maila eta lan baldintzen artean dagoen desorekak ere lan merkatua ez erakargarri bihurtzen du Iparraldeko langileentzat. Hegoaldean, langileen ikasketa mailak ez du lan baldintzekin harreman zuzena, bai aldiz Iparraldean.

“Gero, beste errealtate bat aipatu behar da. Frantzia bezalako herri batean, geroz eta diploma gehiago izan, geroz eta lanpostu kalifikatua eta lansari gora izango dugu. Logika bat bada. Ikerketen arabera, ikasketa urte bakoitzeko, lansaria %10-ez emendatzen da. Baina Espainiaren kasuan, logika hau ez da betetzen. Espainiak ez du Frantziak bezainbat ‘diplomak kultura’ hau. Espainian, diplomaz gain, kompetentziei ere begiratzen zaie (taldean lan egiteko ahala, nortasuna, lehen irudia...). Eta horrek gauzak zailtzen ditu muga zeharkatu nahi lukeen langile batentzat.” (Elkar.5)

d) Arazo administratiboak: administratiboki ere arazoekin topatuko da mugaz beste aldean lan egin nahi duen pertsona; zergak, langile estatusa, prestazioak, erretiroa... Baldintza ezberdinak dira mugaren bi aldeetan eta hori oztopo bat da. Alde batetik, zailtasun gehiago izango ditu bere eskubide eta betebeharrak ezagutzeko eta betetzeko. Eta bestetik, Iparraldean eta Hegoaldean baldintzak ez dira berdinak izango.

“Konplikatua da, ohartzen garelako ez dela beti erraza mugaz gaindiko langile batentzat. Seguritate sozial aldetik, arazoak izango ditu. Bere estatutua ere ez da argia izango. Eta erretreta ere, nola kotizatuko du? Jende bat hasia da horretan lan egiten, baina arazo administratiboa da gehienbat.” (Elkar.8)

“1.-Lehen arazoa eta garrantzitsuena lan legiazioa guztiz desberdina dela.

a) eskubide eta betebeharren aldetik guztiz desberdinak dira bi legiazioak hau da Europar Batasuna badago bai enpresarentzat eta merkantzientzat baina ez langileentzat.

b) gizarte segurantzaren ere guztiz desberdina da: langabeziako prestazioarentzat, erretiro prestazioarentzat ere.

2.-Lan istriputan ere arazo handiak eduki ditugu, kasu batean gure afiliatu bat Hendaian lan egiten zuena zoritxarrez lan istripuz hil egin zen Iparraldean eta arazo izugarriak izan genituen informazio eskuratzeko eta oraindik larriago gorputza ekartzeko Hegoaldera 10 egun pasatu ziren.

3.-Hau da ene ustez langile klasea guztiz galduta dabil bere eskubideak ezagutzeko orduan.” (Elkar.11)

“3) Eta ezagutzen dudan hirugarren oztopoa, oztopo fiskala bat da. Frantzia eta Espainiaren arteko konbenio baten arabera, pertsona bat ezin da bi aldiz inposatua izan. Nire irabazi guztiak Frantzian aitortzen badituz, ez dut zergarik ordaindu beharko Espainian. Baina bi urte pasa eta, Espainian egin beharko dut nire aitormena eta nire zerga tasa Espainian indarrean dena baino handiagoa da (%24). Beraz, Hegoaldean lan egiteagatik, hein batean zigortuta nago. Aspektu fiskal batetik, ez da batere erakargarria Hegoaldean lan egitea. (...) Beste puntu bat aipatuko nuke: mugaz gaindiko langilearena. ‘Mugaz Gaindiko langile’ estatutua lortzeko, bizi tokia eta lantokia gehienik mugaz 30 kilometrotara izan behar dute. Eta Zarautzetik at lan egiten duten langileek ez dute abantaila fiskalik.” (Elkar.5)

e) Etxebizitzaren arazoa: lansaria, lan baldintza eta muga administratiboez gain, badira lan merkatuaren inguruan aurkitzen diren bestelako faktore batzuk Hegoaldean lan egitea erakargarria ez izatea baldintzatzen dutenak. Bereziki, etxebizitzaren arazoa aipatu dute adituek, hots, mugaz bi aldeetan etxebizitza arazo bat den arren, Hegoaldeko egoera oraindik ere okerragoa dela.

“Nire ustez, lan merkatua ez da enpleguari mugatu behar: horri lotzen zaizkio etxebizitza eskaintza, bizi baldintzak, baldintza sozialak... Eta bereziki kontutan hartu behar dena etxebizitzaren arazoa da. Batak bestea baldintzatzen baitu Euskal Herriak ezagutzen duen testuinguru horretan (...) Nik egoera pixka bat gehiago ezagutzen dut eta erakargarritasunari ikusten diodan oztopo nagusia etxebizitzaren arazoa da.” (Elkar.4)

Hau guztia horrela izanda, adituetako batek galdera interesgarri bat luzatu du. Mugaren beste aldean baldintza berdineko lan postu bat lortu ezker, mugitzeko joera izango al du langile batek? Hots, Hendaian bizi den gazte batek Irunen edo Baionan lan berdina lortu ezker (baldintza berdinetan) zenbateko aukera egongo da Irungoa aukeratzeko? Galdera hau erantzutera langileengana jo beharko litzateke.

“[Langabezia] EAE-n %4,5-ekoa dela. Segur da Frantziari konparatzen badiogu egoera arras ezberdina dela. Baina zenbaki gordin horren gibelean, beste errealitate bat gordetzen da. Zein motatako kontratuak dira? Mugagabeak? Denbora osokoak? Zein da lansaria? Zein maila? Eta abar... Langileak zer nahiago izango du? Langabezia ‘bere herrian’ edo lan bat baina baldintza txarragoekin ‘etxetik kanpo’?! Biziki konplikatu da. Horretan da arazoa.

Baina lan berdineagatik lansari hobe bat proposatzen badidate Irunen, ni segidan banao. Nire etxetik berdin da Baionara edo Irunera joatea. Eta mugarik ez dut buruan. Baina

denek ni bezala pentsatuko ote dute? Ez dakit. Langile batek kontutan hartzen dituen bi aldagaiak lanaren interesa eta promoziorako aukerak dira.” (Elkar.8)

4.1.5 Hezkuntza sistema ezberdindua

Adituek aipatu dute ere, hezkuntza sistema ezberdina izateak, mugaz beste aldean lan egiteko titulazioen baliokidetasunak bilatzea behartzen duela langilea. Orain arte gutxienez, prozesu hori nahikoa konplikatu zen, eta beraz, beste oztopo bat suposatzen du mugaz beste aldera lanera jotzeko orduan. Horrek gazteak urrundu egiten ditu fisikoki gertuago duten lan merkatutik.

“2) Bigarren arazoa, diplomen ezagupenean oinarritzen da. Europar diplomekin, arazoa konpondu beharko litzateke, baina momentuz indarrean da oraindik. Gaur egun, Frantzia doktorego bat duen langileak, bere diploma ezagutarazi behar du Espainiar Estatuan. Nire kasuan, ezagutze lan horrek bi urte eta erdi iraun du. Ez dirudi ezer, baina oztopo bat da” (Elkar.5)

“Unibertsitate mailan, askotan entzuten da diplomen harmonizazioa eta bateragarritasunerantz goazela. Formakuntza profesionala ere mugaz bi aldetako errealitateari egokitu nahi diote. Baina momentuz, ezer ez da egin.” (Elkar.10)

Bestalde, ikasketak mugaz beste aldean burutu ahal izateko ere oztopo handiak topatzen dituzte gazteek.

“Hezkuntza sistemak oztopo dira lagungarri baino gehiago. Arazoak daude Iparraldeko ikasleak EHU ikasteko, orain badirudi formula zehatz bat bilatzen ari direla hori errazteko. Eta lanbide heziketan eta hezkuntzako esparru ezberdinetan beti ere ezberdintasunak oztopo dira, konbalidazio prozesu burokratiko luzeak, etab.” (Elkar.7)

4.1.6 Mugikortasun arazoak

Lan merkatuaren mugikortasuna oztopatzen duen beste faktore bat komunikabideena da, batez ere garraio publikoei dagokienez. Ez dago garraio publiko sare arin bat Baiona-Donostia euro-hiria komunikatuko duena. Beraz, balizko langileen mugikortasuna oso mugatua dago alde

horretatik. Hau da, hain zuzen, Baiona-Donostia euro-hiriko proiektuaren puntu garrantzitsuenetako bat.

“Mugikortasunari dagokionez, badirudi gai hau konpontzea erraza dela baina zailtasun handiak daude, euskal euro-hiriaren kasuan ikusi dugun bezala. Mugikortasuna hobetzeak inbertsioak eskatzen ditu eta Iparraldeko inbertsioak Parisen ardurapean daude. Parisen, ordea, ez dute inongo interesik bide berriak bultzatzeko Euskal Herriarekin edo Espainiarekin. Beste lehentasun batzuk dituzte, Italia, Alemania eta Ingalaterrarekin lotzea kasu.” (Elkar.3)

“Garraio arazo bat bada, bereziki Hendaia-erako konexioan. Hala ere, errealitate arras ezberdina da. Hegoaldean hiri-dentsitate azkar bat dute beraz garraio sare biziki garatu bat. Ez da gure kasua. Beraz arazoa gurea da. Hobetuz doa litorala zeharkatzen duen sareari esker, baina bada lan asko oraindik. Alor horretan, errango nuke egin beharra hau dela: Hendaia-eratik aitzina ongi da. Beraz hobetu behar da Hendaia aitzin. Nire ustez arazo hau ez da egiazko arazo bat.” (Elkar.4)

“Bestalde, azpiegiturak ere aipatu behar dira. (...) Gaur egun, pertsona batek Baionatik Gasteizera trenaz joan nahi bada, 4 orduko ibilbidea egin beharko du! Eta hori lotsagarria da!! Zergatik errazago da Bordelera joatea ez eta Gasteizera?” (Elkar.5)

“Segitzeko, azpiegitura arazo bat bada. Bihar, milaka langile mugaren beste aldera lan egitera joango balira, azpiegitura eskas bati aurre egin beharko liokete. Bide sarea eta garraio publikoen sarea ez dira aski garatuak jario hori kudeatzeko.” (Elkar.10)

4.1.7 Administrazioaren bultzada falta

Aipatu dugunez, lantzen ari garen gaian eragina izango du Europako Batasunetik bultzatzen ari diren Lisboako Estrategiak. Baina gure adituak arabera, estrategia horren ondorioak modu lokalean, Euro-hiriaren inguruan beraz, nabaritzerako denbora luzea pasa beharko da. Tokiko politikariak (EAE, Gipuzkoa eta Iparraldeko politikariak) ez baitituzte estrategia komun eta orokor batetan ikusten, Lisboako estrategian planteatzen diren hainbat gai lantzerako garaian: adibidez, enplegu politika koordinatu bat lantzerako garaian, langabezia estrukturalarekin eta bazterketa arriskua duten jendearengan eraginik izango duen politika bat garatzerakoan, etab.

Baiona-Donostiako euro-hiriaren proiektuaren garapenean ere, bi aldeen arteko lankidetzan, eta elkarlanean aurrerapausoak emateko, zailtasun eta oztopo handiekin topatzen ari direla aipatu digute adituek. Batetik, bi estatuen egituraketa oso ezberdina delako, eta burokrazia arazoak medio oso geldoa delako euro-hiriaren proiektuaren garapena. Bereziki Iparraldean erabaki administratiboak hartzeko zailtasunek moteltzen omen dute proiektua (etengabe Parisera kontsultak egin beharrean aurkitzen dira bertako agintariak).

“Eta tokiko instituzioen kompetentzietan ere sobera ezberdintasun bada oraindik. Kompetentzia berdineko kolektibitateak baziren mugaren bi aldeetan, horrek asko erraztuko luke lankidetzak. Autonomi Erkidegoak kompetentzien %90-a bere eskuetan du. Guk ez dugu ezer eta duguna, instituzio ezberdinen artean banatua da: estatua, eskualdea, departamendua... Mugaz gaindiko estrategia ekonomiko amankomun baten antolatzeke biziki zaila da. Hamaika erakunde daude hemen, bakoitzak lehentasun ezberdin batzuk ditu... Kontestu horretan, nola aitzinarazi unibertitateak, formakuntza profesionala, garraioak?..” (Elkar.4)

Zentzu honetan, badira ezadostasunak adituen artean. Batzuen ustez, Baiona-Donostiaren proiektuan aurrerapausorik emango bada Euskal Autonomia Erkidegoko gobernuaren dinamismo eta apustu garbiari esker izango da.

“Etorkizunean zerbait egiten bada, Euskal Autonomi Erkidegoko dinamismo liberalari esker izango dela uste dut. Gauzak biziki fite aitzinatzen dira han. Dinamismo hori eredugarria da. Eta estrategia koherente bat badute. Behar bada hori eskas dugu hemen?!” (Elkar.4)

Beste batzuk, Iparraldean elkar lankidetzaren beharra atzematen dela esan digute, baina Gasteizko gobernuak ez duela bere lehentasunen artean.

“Aldiz, dugun arazo nagusi bat da ez dela bere lehentasuna atzematen mugaren bi aldeetan. Zer erran nahi dut horrekin? Orain errango dudana, ikuspegi pertsonal batetik erran nahi dut: Frantziaren aldetik, instituzioek eta elkarteek galdetzen dute mugaz gaindiko harremanen azkartze bat. Nahikeria hori sentitzen da. Baina ohartu naiz Hegoaldean, mugaz gaindiko lankidetzarekin ados direla, baina ez da haien lehentasuna! Askotan, alderantzizkoa uste da: Hegoaldean badela nahikeria hau, baina Iparraldean ez! Baina nik diot ezetz! Ez da hala gertatzen! Edo bederen nire esperientziak hori erratea ahalbidetzen du.

Beraz, konferentziaren helburua Gasteizen den Gobernuari lehentasun hori ulertaraztea da. Nahiz Gasteiz ez izan mugatik hurbil, sentsibilizazio lan hau egin

behar da. Indarrak berdinak izan behar dira bi aldetan. Sentsibilizazio lan horren bidez aitzinatuko da mugaz gaindiko lankidetzak. Nondik dator fenomeno hori? Nik pentsatzen dut Hegoaldean dirua eta dinamismoa badela eta horrekin konformatzen direla” (Elkar.8)

Beste batzuk, azkenik, bi aldeetako administrazioen utzikeria azpimarratzen dute. Horien ustez, mugaz bi aldeetako lankidetzak ez da lehentasun bat ez batzuentzat eta ez besteentzat ere, puntu konkretuetan izan ezik (osasuna,...).

“Hala ere, benetako ekimen politiko bat falta da, zeren adarretatik helduz gero, mugaz bi aldeetako mugikortasuna erraztea bada; oztopoak identifikatu eta hauek gainditzeko borondate politikoa egonez gero bi aldeetan.” (Elkar.7)

“Politika instituzionala eskasegia baita! Agintariek ez dute lan merkatua amankomunean kudeatu nahi! Eta hori argi da! Harremanak badirela ez dut ukatzen, baina konkretuki ez da ezer gauzatzen. Adibide bat har dezagun: enplegu agentzien koordinazio gutxi bada ANPE eta INEM artean. Txingudi hartzen badugu ere, mugaz gaindiko lankidetzak ere eskasa da: zeregin nagusia zaborren kudeaketarena zen eta horrek ere porrot egin du. (...) ez dut nahikeria izpirik sentitzen aktore instituzionalen aldetik. Euskal Gobernuak bere barne dinamikei begira da. Enplegu eta politika industrialen aldetik, Nafarroa Madrilera dinamikei lotua da gehiago. Eta Iparraldean, berezko instituzioen eskasaz, dinamika propioen eskasa pairatzen dugu.” (Elkar.10)

“Ez, uste dut lehentasunak argiki finkatuak direla. Gutariko bakoitza ongi sentitzen da bere bazterrean. Eta ezer ez da aldatuko nire egunerokotasunean nire senarra Hegoaldera joaten bada lan egitera. Aldiz, osasun arloan bai! Irunen zauritzen banaiz, kooperazioa beharko dut. Istripu asko daude ere.

Aldiz, lan aldetik? Bosta axola! Hilabete bukaeran soldata bat badugun momentuan, ez dugu Hegoaldera begiratuko lan baldintzak hobek diren ikusteko. Konformismoa hutsa da. Eta, politikariek ongi ulertu dute hori. Eta ardatz hori baztertuta izan bada, ez da kasualitatea nire ustez. Bakoitza bere tokian, Iparraldea Parisera begira, Hegoaldea Madrilera eta puntu final. Ez dugu elkar begiratzen.” (Elkar.6)

Batzuen iritziz, administrazioen utzikeria langileen fluxua erraztuta ere merkatu txikia delako ematen da, batez ere, Europako Batasunaren aldetik. Beste batzuk, berriz, interes politikoak atzematen dituzte utzikeria horren atzean.

“Datuak ikusita, badirudi ez dutela serio planteatu. Ez Iparraldeko enplegu erakunde publikoek, ez eta Hegoaldekoek ere ez dute planteatu mugikortasuna erraztea, nahiz eta lege aldetik hori den egin beharko luketena. Beraz, oztopatu ez, baina badirudi gaia ez dutela oso serio hartu. Eta, irakurri ditudan txostenen artean badago bat enpleguko mugaz gaindiko behatokiarena, oso txosten mardula da, eta hemen esaten da, serio ez hartzeko arrazoi nagusia jende gutxi dagoela da. Hau da, beste mugekin alderatuta, Frantzia eta Alemaniaren artekoa esaterako, oso jende kopuru txikia dago hemen. Pirinioetako ekialdean askoz jende gehiago dago, Bartzelonako industriaren inguruan. Beraz, badirudi hemengoa ez dutela oso serio hartu, behar handirik edo eskaera handirik ez dagoelako. Erreserbekin esaten dizut hau, baina hori irakurri dut nik. Horrek ez du esan nahi horretan saiatu behar ez denik. Batzutan eskaerarik ez dago eskaintzarik egiten ez delako. Baina, badirudi, momentuz, eskaera gutxi dagoela eta erakunde publikoek ere egiten duten eskaintza eskasa dela.” (Elkar.7)

“Pirinioetako mugaz gaindiko behatokiak egindako txosten honetan sindikatuek eta beste eragileek parte hartu dute, denetarik pixka bat, zuen elkarrizketagai direnak nolabait; eta proposatzen zuten hemen, muga, Eures jartzea, hau da, europar enplegu leihatila bat. Hori bai da indar-gune garrantzitsu bat, eta hau jartzea planteatzen zen. Europar Batasunak ez du jartzen, ordea, eta badirudi berriz ere zenbakiengatik dela, hau da, hemen dagoen mugimendu eskasagatik. Perpinagnen, aldiz, bada; hango mugimenduaren erakusgarri.

Euresen zeregina mugaz gaindiko mugikortasuna edo zirkulazioa laguntzea eta horretarako egon daitezkeen oztupoak gainditzeko laguntzea da, modu ezberdinetan. Europar Batzordeak sortua da eta honek finantzatzen du. Honek bai, izugarritzko aldaketa ekarriko luke.” (Elkar.7)

“Mugaz gaindiko harremanen printzipioak existitzen dira, hori bai, baina ekintzak gutxi dira. ‘Mugaz gaindiko elkarlana’ ederra da; asko aipatzen da. Baina konkretuki ezer ez da egiten.

Aldiz, Frantzia Iparrean edo Ekialdean gauzak eginak izan dira: Enplegu dinamikak burutu dira, urbanizazio eta ber-industrializazio planak egin dira... Frantzia Iparreko enplegu zonaldea mugaz gaindikoa dela errango nuke; hemengoa baino askoz gehiago behintzat! Euskal Herrian, aktore batzuen nahia, enplegu zonaldea Iparrerantz garatzea da; inolaz ere ez Hegorantz. Estrategikoa da. ASSEDIC, ANPE eta bestelako instituzioen hautua argi da: mugaz gaindiko ikuspegia baino, Landesetara begiratu nahi dute. Era berean, Zuberoa Biarnoari lotu nahi diote. Horrela, nortasun aldarrikapen bat deuseztatzen dute. Gure nazio ikuspegia ez dute onartzen eta ez

dute urratsik egin nahi zentzu horretan. Iparraldea ekonomikoki zatituz, proiektu oso bat zapuzten dute!” (Elkar.10)

“Hautetsi handiak (senadore, diputatuak) Parisera begira daude. Haien papera da. Pertsona hauen funtzioa, Parisen eta Euskal Herriaren arteko lotura egitea da. Eta gure eskualdea Hegoaldera begira hasten bada, dinamikak zentzu horretan eraikitze badira, ba hautetsi handi horiek ez dute gehiago funtziorik. Zilegitasun guztia galtzen dute. Horregatik hautsi nahi dute dinamika hau.” (Elkar.10)

“Gero, langile eta ikasleen mugikortasunari buruz, izugarriko lana egiten dugu. Baina asko egin beharra da oraindik. Eta ez da aitzinatzen: legedia ez da berdina, estatuak ere ez eta erraten digute Parisetik edo Madriletik etorriko direla aldaketak. Beraz bitartean, ezin dugu ezer aitzinatu.” (Elkar.8)

V. Mugikortasunean positiboki eragin dezaketen faktoreak

Aipatu dugu jada, adituen iritziz Baiona-Donostiako lan merkatua ezberdina den arren aukera handiak daudela elkar harremanak eta mugikortasuna bultzatzeko, eta hori egitea interesgarria izango litzatekeela mugaz bi aldeetako eragileentzat, bai ikuspegi pragmatiko batetatik eta baita herri ikuspegia duen edozeinentzat ere. Baina mugikortasun hori eragozten duten faktoreak ere ez dira makalak. Horien aurrean eta mugikortasunean positiboki eragite aldera ekimen ezberdinak aipatzen dituzte adituek. Hona hemen horietako batzuk:

5.1.1 Elkar ezagutzeko bideak ireki

Mugaz bi aldeetako komunitateak elkar ezagutzeko bideak ireki behar dira. Horretarako, lehenik eta behin elkar ezagutza horren beharra edo gogoa sortuz. Ez-ezagutza hori gaindituz gero, mugaz beste aldeko merkatua interesgarria eta erakargarria izango dela dudarik ez dute adituek.

“Horregatik, mugikortasuna garrantzitsua da elkar ezagutzeko (...) aurreiritziak gainditzeko. Bestela ez dago elkar ezagutzerik. Eta ezagutzen ez denak beldurra ematen du, edota mespretxua... ez du gauza onik eragiten (...) Hesi mentalak eta aurreiritziak desagerrarazten lagundu beharra dago, eta hori ez da egun batetik bestera egiten” (Elkar.3)

“Ez dut uste errezeta magikorik badenik. ANPE eta INEM batzen ahal dira, baina horrek ez du gauza handirik aldatuko. Jendeak buruan duen ‘logiziela’ edo ‘programa’ aldatu behar da. Nire adibidea ohargarria da: herrira sartu nintzen duela bi urte. Hasiera batean zaila zitzaidan eguneroko bizian muga zeharkatzea. Eta denbora pasa arau, geroz eta erosoago sentitzen naiz han. Bizitu behar diren esperientziak dira. Gero, tresna batzuk beharko dira horren errazteko, baina lehen faktorea jendearengan da.

Tresna gisa adibidez, ikastaroak [praktikak] aipa daitezke. 16 urtetan gaztea aste betez Hegoaldera bidaltzen balitz, urrats handi bat litzateke. “ (Elkar.4)

“Azken puntu gisa, errango nuke motibazioak baduela bere garrantzia. Eta jendea motibatzeke ezagutu behar da. Ezagutzen ez dugunak ez gaitu sekulan erakarriko. Hortik abiatu behar da. Eta gero errazago izango da: langilea gogotik joango da hara lan egitera.” (Elkar.8)

“Nik ikusten dudana, buruetan Muga handi bat badela da! Pertsona gutxi Hegoaldean lan egiteko gai sentitzen da. Eta bereziki gazteengan.

Bigarren etapa batean, proposamenak heldu direlarik, beste gogoeta bat sortzen da: “zergatik ez? Azkenean ikastaro bat egin dut jadanik...” Horregatik, nire ustez, biziki garrantzitsua da ikasleak Hegoaldera bidaltzea praktikak egiteko. Muga buruetan da. Ez dute heien burua han lan egiten ikusten. Kontzientzia hartze bat besterik ez da eskas urrats horren egiteko. Eta kontzientzia hartze hori, ikastaro baten bidez pasa daiteke. Beste errealitate bat ezagutzen dute, beste lan merkatu bat, giro biziago bat eta abar. Eta horrek erakartzen ditu. Eta horrek erakartzen ditu. Baina oraindik urrun gera. Segitu behar da lankidetzari hori. Bai sektore pribatuan, baina baita publikoan ere.” (Elkar.6)

“Hala ere, badirudi, maila handi batean ez-ezagutza eta inkomunikazioa dagoela. Beraz, azpiegiturak esaten denean, muga fisikoetaz gain ezinbestekoa dirudiena komunikazio kanpaina zabal bat da, dibulgazio kanpaina zabal bat alde bateko zein besteko lan merkatua nolako den eta zein behar dauden ezagutarazteko. (...) Beraz, azpiegiturak lagunduko dute, baina funtsezkoa da dibulgazio-informazio kanpaina osagarria.” (Elkar.7)

5.1.2 Hizkuntza politika birplanteatu

Mugikortasuna errealitate bat izan dadin langileen hizkuntza gaitasuna handitzea ezinbesteko baldintza dela aipatu digute.

“Mugaz bi aldeetako herrietan hizkuntza politika berbera izan beharko genuke, guztiek hiru hizkuntzak ikasi beharko genituzke. Izugarritzko aurrerapausoa izango litzateke lan merkatua gazte guztiei ireki ahal izateko.” (Elkar.3)

“Mugaz gaindiko mugikortasuna etorkizuneko logika bat da. Pentsatzen dut eremu batean bizitzea garrantzitsua dela, baina oraindik garrantzitsuagoa da beste eremuetara ere begiratzea. Perspektibak zabaldu behar dira. Horretarako, hizkuntza gaitasunak ezinbestekoak dira.” (Elkar.5)

5.1.3 Ikasketen baliokidetasuna bideratu eta osagarritasuna aldarrikatu

Ikasketa eskaintzaren osagarritasuna kaleratu behar da. Alde batetik, ikastetxe eta unibertsitateen artean elkarlana bultzatuz. Eta bestetik, gazteen artean mugaz beste aldean dauden aukerak ezagutzera emanez; bai unibertsitate mailan eta baita eskola teknikoan mailan ere. Azkenik, lan munduan txertatu ahal izateko titulazioen baliokidetasuna bilatu behar da, eta hauen berri langileei zein enpresariei eman.

“Formakuntzak ireki behar dira, baina bidea luzea da. Formakuntzak ez dira berdinak, ez ditugu gauza berdinak lantzen, metodologia ez da berdina. Baina kurtso amankomunak eraikiz, pausu txiki bat egiten dugu. Enpresak bisitatuz, pausu txiki bat egiten dugu. Hau da bidea. Bidea luzea da, baina segurua.” (Elkar.6)

“Nik ez dakit zenbat ikasle joaten den EHU-ra ikastera eta zein zailtasun duten. Baina interesgarria da hori sustatzea. Zergatik Bordale eta Parise eta ez Deusto eta Bilbo? Eta diplomen ko-ofizialtasuna hartara heltzeko urrats bat izan daiteke.” (Elkar.8)

“Bestalde formakuntza eta ikasketak bateragarri bilakatu behar dira. Horrek ahalbidetuko du mugikortasun handiago bat.” (Elkar.10)

“Ikastaroen antolaketa berri hori ere urrats bat da. Baina luzeena eta zailena izango dena, irakaslegoaren aldatzea izango da. Unibertsitate irakasleen irudi aldaezin bat

bada Europan. Mekanismo zahar batzuk bezala. Ezin dira hunkitu ere egin. Irakaslea bere anfiteatroari lotua da eta zaila izango da hortik ateraraztea nire ustez.” (Elkar.6)

5.1.4 Jarduera ekonomikoa bultzatu

Lisboako estrategiaren ildotik, adituek, Hegoaldekoek batez ere, oinarri ekonomikoa berritzeko premia aipatu dute. Hauen ustez, *“zerbitzuetan oinarritu behar luke, baina enpresei zuzendutako zerbitzu aurreratuetan hain zuzen, teknologia berrietan, enpresekin eta unibertsitatearekin lotutako berrikuntzan, aktibitate kreatiboa bultzatzen duten sektoreen jardueran, ikus-entzunezko sektorean (teknologia berriekekin oso lotua), bioteknologian, nanoteknologian. Gauza hauek guztiak egiten ari dira baina oraindik hastapenetan daude. Balio erantsi handiagoa duten jarduerak sortuz lanpostu gehiago sortuko dira, kalitate hobekoak gainera”* (Elkar.3). Mota hauetako lanpostuak egoteak ere mugaz beste aldeko lan merkatuaren erakargarritasuna handituko luke. Horretarako noski, bertako enpresaren tamaina txikia izanik, beharrezkoa izango litzateke enpresa elkarteak sortzea eta administrazioaren babes osoa izatea.

Horrekin batera, turismoa ere landu beharko litzateke, baina ez aisialdi turismoa, *“kultura eta negozioetan oinarrituriko turismoa baizik. Gu lehiakorrak izan gaitezke horretan. Urtez urte ikaragarri hazten ari den jarduera ekonomikoa da eta aberastasun iturri garrantzitsua izan daiteke”* (Elkar.3).

5.1.5 Lan merkatua kudeatzen duen sare bat eraiki

Lan merkatua kudatzeko sare bat eraikitzea proposatu dute adituek, hauen ustez, sare horrek izugarritzko bultzada emango lioke Baiona-Donostiako lan merkatuari.

“Beraz, bukatzeko, zer egin beharko litzatekeen? Alde batetik lan merkatua kudeatzen dutenen sare bat eraiki” (Elkar.10).

“Pirinioetako mugaz gairiko behatokiak egindako txosten honetan sindikatuek eta beste eragileek parte hartu dute, denetarik pixka bat, zuen elkarrizketagai direnak nolabait; eta proposatzen zuten hemen, mugan, Eures jartzea, hau da, europar enplegu leihatila bat. Hori bai da indar-gune garrantzitsu bat, eta hau jartzea planteatzen zen. Europar Batasunak ez du jartzen, ordea, eta badirudi berriz ere

zenbakiengatik dela, hau da, hemen dagoen mugimendu eskasagatik. Perpinagnen, aldiz, bada; hango mugimenduaren erakusgarri.

Euresen zeregina mugaz gaidiko mugikortasuna edo zirkulazioa laguntzea eta horretarako egon daitezkeen oztupoak gaititzen laguntzea da, modu ezberdinetan. Europar Batzordeak sortua da eta honek finantzatzen du. Honek bai, izugarrizko aldaketa ekarriko luke” (Elkar.7).

5.1.6 Azpiegitura sarea hobetu

Langileen eta merkantzien mugikortasunari bideak ireki behar zaizkio, horretarako garraio sare sendoa sortuz. Komunikabide publikoak ere indartu egin behar dira mugikortasuna ahalbidetu nahi bada. Eta hau guztia, elkarrekin egin behar da adituen iritziz, modu koordinatuan eta jasangarrian.

“Hirugarrenik azpiegiturak hobetuko nituzke, garapenaren oinarria baitira. Azpiegiturek langileen eta merkantzien mugikortasuna ahalbidetzen dute. Eta mugaz gaidiko lankidetzarik ez da, mugikortasunik gabe. Ezin badut ordu erdi batez eta garraio publikoen bidez Baionatik Donostiara joan, Euro-hiriak ez du zentzurik” (Elkar.10)

5.1.7 Merkataritza sare bat bultzatu

Merkataritza eta salmenta sare bat bultzatu. Adibidez lehen sektorean produkzioa ez da handia, baina bai kalitatezkoa; eta, *“lehen sektoreak ez du inolako etorkizunik merkatu sare handien baitan, bitartekari gutxiago eskatzen duen salmenta sare propioa nolabait antolatu” (Elkar.2)* beharko litzateke. Horrekin batera, sare ekonomiko, sozial eta kulturala hedatuz joan beharko litzateke.

5.1.8 Baiona-Donostia euro-hiriaren egitasmoan aurrera egin

Adituek aipatu dute Baiona-Donostia euro-hiriaren egitasmoaren potentzialitatea ere. Egitasmo hau guztion artean diseinatu eta bultzatu ezker aurrerapauso handia litzateke mugikortasunari begira.

“Bihar, euro-hiriak du gure geroa definituko. Euro-hirian oinarritzen da garapen harmoniko baten sekretua.” (Elkar.6)

5.1.9 Administrazioen konpromisoa bilatu

Mugaz bi aldeetako lan merkatuaren mugikortasuna bultzatzeko ezinbestekoa da adituen ustetan administrazioaren konpromisoa bilatzea. Etengabeko harreman sarea eta elkarlana bultzatuz.

“Nik pentsatzen dut instituzio mailan harremanak behar direla. Egiazko harremanak! Ez bakarrik besta harremanak. Ez bakarrik meza handi hauek. Nik, egiazko harremanak aipatzen ditut: amankomunak ditugun problematikak aipatzeko eta konpontzeko neurriak mahai gainean ematen dituzten harremanak dira behar ditugunak!

Ekonomia iraunkorra aipatzen dugu; hamaika gauza egin daitezke. Auzoaren etxean zer egiten ikustera joan, elkarrekin analizatu, soluzioak atxeman... Edo, adibidez, hilabete guztiz mugaz gairikoa bat antolatzen balitz, Herriko Etxea nagusiak gomitatuz eta arazoak konpontzeko neurriak hartuz, aitzinamendu asko ezagutuko ginuke. Eta pixkanaka sare bat osatu. Elkarlana, kompetentziak partekatu, eta abar... Beste izpiritu bat behar dugu garatu hartara iristeko. Gaur, mugak buruetan dira nere uestez. Baina erraza da hauen haustea: nahikeria eta denbora dira errezeta magikoa!” (Elkar.6).

“Nik pentsatzen dut ikastaroen bidez asko pasatzen dela; galdera bada. Eta enpresa munduan murgiltzeko aukera paregabea da. Hola diogu gazte bati, Hegoaldera lan egiteko gogoia emango. Baina beti falta dena, nahikeria politikoa da” (Elkar.8).

5.1.10 Langile eta eragileen ekimena

Dena den, askok aipatu dute ere, administrazioen errezeta magikoen gainetik, langileek eta eragileek eman ditzaketen pausu txikiak izango direla eraginkorragoak. Pausu horiek errealistagoak dira, eta ondorioz, eraginkorragoak ere bai.

“Horregatik pausu txikien politikan sinesten dut. Adibidez, Estia eta Arrasateko Unibertsitateen artean eraki den kolaborazioa interesgarria da. Hau da bidea: elkarlana, irakasle trukaketa, elkar ezagutza... Hortik hasten da” (Elkar.6).

“Nik, azpiko lankidetzari sinesten dut ez eta lankidetzak instituzionalari. Populakuntzak eta merkatuak dute lankidetzak eraikiko nire ustez. Dena ez da akordio instituzionaletatik pasatuko.” (Elkar.5)

“Euro-hiriak ikerketa on asko egin du: azpiegiturak, osasun zerbitzuak, mugikortasuna... Kalitate onekoak baldin badira ere, errealitatearekiko tarte handia badute. (...) Azkenean, lankidetzak ez baita gainera eginen: alde batetik ez baita nahikeriarik eta bestetik zaila baita erakunde handiak ados jartzea. Errazago da urrats txikia egitea. Crozier soziologoak zioen ‘jendartea ez dela dekretuen bidez zuzentzen’ Eta hala da. Gaurko jendarteak prozesuetan parte hartu nahi du. Mugaz gaindiko lankidetzan inplikatu nahi du. Jendartea inplikatu bakarrik lortuko da!” (Elkar.5).

“Baina oraindik urrun gara. Segitu behar da lankidetzak hori. Bai sektore pribatuan, baina baita publikoan ere” (Elkar.6).

“Ni buru belarri sartu naiz proiektu horretan, iruditzen zitzaidalako jendearen buruetan ‘nazioarteko eta mugaz gaindiko’ izpirituak sartzeko molderik onena zela. Ni, biziki pragmatikoa naiz: pentsatzen dut terrenotik abiatu eta gero pixkanaka igo behar dela. Horrek ez du kentzen instituzioek ere zentzu horretan lan egin behar dutela. Azkenean, bi aldetan egiten da lana: azpitik goiti eta goitik azpira. Terreno lan horri esker, mugaz gaindi egiten zenez jabetu ahal izan gira” (Elkar.8).



VI: Ondorioak laburbilduz

Gure galdera nagusiari, hots, **Baiona-Donostiako herritarrentzat aukera bideragarria (formazio eta lan baldintzen aldetik) eta erakargarriagoa (beste aukera batzuen artean) izango ote den mugaren beste aldean lan egitea**, baiezko borobila eman diete adituek. Alde batetik, bi aldeetako jarduera ekonomikoa, eta ondorioz merkatua ezberdina den arren osagarriak direlako. Bestetik, Baiona-Donostia euro-hiriaren egitasmoak bi aldeetako lan merkatuan aukera berriak zabalduko lituzkeelako.

Europako Batasunetik heldu zaizkigun joerak ere lagungarri izango dira langileen mugikortasuna ahalbidetzeko ahaleginetan. Egun Hegoaldeko lan merkatua dinamikoa den arren (lanpostu berri asko sortzen dira), sortzen diren aukera gehienen lan baldintzak ez dira erakargarriak izateko bezain onak. Aditu batzuen iritziz hau aldatu daiteke Lisboako estrategiaren haritik. Ezagutzaren ekonomiara jauzia emateko inbertsioak egiten badira, balio erantsia duten kalitatezko lanpostuak sortuko dira eta Hegoaldeko lan merkatuak behar duen kalitatezko lanpostuak sortuko ditu.

Iritzi hau ordea ez da oso zabaldua adituen artean, badira Lisboako estrategiak epe laburrean Baiona-Donostiako merkatuan eragin errealik ez duela izango uste dutenak, eta badira ere, Lisboako strategiaren asmo onetan sinesten ez dutenak.

Bestetik, Europako Batasunetik bultzatzen ari diren harmonizazio politikak oztopo administratiboak gainditzera datoz neurri handi batean; are gehiago, mugen arteko lankidetzeta eta mugikortasuna bultzatzea da Batasuneko helburuetako bat. Horrek guztiak, langileen eta ikasleen mugikortasuna erraztuko du duarik gabe.

Dena den, hori horrela izanik ere adituen ustez, administrazioetatik oraindik lan handia dago egiteko. Eta arrazoi bat eta bestea tarteko, egun ez dirudi administrazioen aldetik mugikortasunari bultzada sendoa emateko aukera handiegia denik. Batzuk, Hegoaldeko administrazioen nahikeria faltan ipintzen dituzte erruak, besteek Iparraldeko administrazioen ahalmen, eraginkortasun eta nahikeria faltan, beste batzuek azkenik, alde bateko zein besteko administrazioek benetako apustu argia egitea falta dutela irizten diote.

Horiek aipatzen diren aukera eta muga administratiboak, baina badira urtetako politikek eragindako beste maila batetako mugak ere. Urtetan Parisera eta Madrilera begira bizitzen egon ondoren mugaz bi aldeetako herritarren artean muga psikologiko eta kultural garrantzitsua sortu da. Muga horren ondorioz, pentsamendu kolektiboan mugaz beste aldean dagoena ez da existitu ere egiten. Lan postua bilatzerakoan, langileak topatzen saiatzerakoan, beste merkatuetara zabaltzera jotzen denean, ikasketak aukeratzekoan, etab. geografikoki kilometro batzuetara soilik dagoen errealitate hori ez da kontuan hartzen. Eta hori, aditu gehienek, identitate kultural komun bat badela ukazina dela aipatu dutenean.

Muga hauek guztiak halere, gainditu daitezkeela edo gainditzeko ari direla uste dute gehienek, eta etorkizun hurbilean aukera erakargarria izango dela mugaz beste aldeko merkatura zabaltzea, bai lanaren ikuspegitik eta baita enpresa ikuspegitik (merkatua zabaltzeko aukera, bertako esperientzietatik ikasteko, produktu komunak sortzeko, etab).

Zentzu honetan jadanik hasiak dira hainbat esperientzia garatzen, eta bidea horrelakoetan sakontzea dela uste dute adituek; hala nola, Hezkuntzek, Arrasateko Unibertsitatea eta ESTIaren arteko elkarlana, Merkataritza Ganbarak kaleratutako *'Mugaz gaindiko langilearen Gida'*, Euro-hiriaren egitasmoa bera, eta beste hainbat egitasmo..

Aldaketa, ordea, motela izango dela aipatzen da ere, eta guztion lana eta inplikazioa eskatuko duela.

“Lehen aipatu ditudan muga psikologiko eta kulturek murrizteko joera izango dutela uste dut eta, beraz, fluxua handitu egingo dela espero daiteke. Mugikortasuna handitzen ari da azken urteotan, bai ikasleen aldetik, bai langileen aldetik eta arlo guztietan. Beraz, bide honetatik, mugikortasunak handitzeko joera izango duela espero daiteke. Izan ere, egun mugikortasuna hain eskasa denez, handitzeko joera izango duela uste dut.

Hala ere, egoera politikoak eta ekonomikoak aldaketa nabarmenak izaten ez dituzten bitartean, nik uste dut, joera hori konstantea izango dela baina motela. Egoera politikoak zeharo aldatuko balitz, edo nabarmen aldatuko balitz, hau da, Euskal Herriaren egituraketan aurreratuko balitz, honek bai ekarriko lukeela euskal mugako mugikortasuna handitzea.

Eta ekonomikoki aldaketa nabarmen bat egongo balitz, Iparraldean nahiz Hegoaldean, hobekuntza edo krisi bat dagoelako, horrek prozesua azkartzea ekarriko luke. Baina, gainontzean, bilakaera politikoak edo sozio-ekonomikoak aldaketa nabarmenak ez dituen bitartean, bai erakargarria izango da, eta fluxu gehiago egongo da, baina mugikortasun hau konstantea eta motela izango da.” (Elkar.7)



VII. Dokumentazioa

Eusko Jaurlaritza, lan merkatua: <http://www.juslan.ejgv.euskadi.net/r45-19023/eu>

Garapen Kontseilua, PB 2020 prozesuaren lan agiriak: www.lurraldea.net/bibliodocs

- Synthèse des travaux de l'atelier économie emploi ressources humaines
- La formation et l'insertion professionnelle des jeunes en Pays Basque

Hezkuntek egitasmoa: <http://www.soziolinguistika.org/eu/node/1362>

Euro-hiria, ikerketak eta argitalpenak: <http://www.eurocite.org/page.asp?IDPAGE=230>

Lisboako estrategia:

http://www.consilium.europa.eu/ueDocs/cms_Data/docs/pressData/fr/ec/00100-r1.f0.htm

http://www.consilium.europa.eu/ueDocs/cms_Data/docs/pressData/es/ec/00100-r1.es0.htm

CES, Memoria Socioeconómica: <http://www.cesvasco.es/Default.aspx?tabid=109>



VIII. Eranskina: ikerketan erabilitako euskarriak

8.1.1 Adituei bidalitako azalpen gutuna

Arestian aipatu dizugun bezala, ikerketaren fase honen helburua Baiona-Donostia euskal euro-hiriak etorkizunean izango duen lan merkatuari buruz adituok duzuen iritzia jasotzea da. Galdera nagusi baten inguruan: ***etorkizunean erakargarria izango al da mugaz bestaldean lan egitea?***

Zuen iritzia jasotzeko erabiliko dugun metodologia posta bidezko galdera-sorta erdi-egituratu bati emandako erantzunak jasotzea izango da. Erabiliko dugun prozedurak pausu hauek izango ditu:

- 1.- Galdetegia bidaltzen dizuegu.
- 2.- Zuen erantzun idatziak jasotzen ditugu. (bi asteko epean)
- 3.- Jasotzen ditugun aditu guztien erantzunekin lehen txosten bat osatzen dugu.
- 4.- Osatutako txostena zuei helarazten dizuegu; zuen iritzia eman dezazuen eta beharrezko ikusten dituzuen aldatetak planteatu ditzazuen.

5.- Egindako ekarpenekin azken txostena osatzen dugu.

6.- Azken txostena ere zuei helaraziko zaizue publiko egin aurretik.

Ondorengo orrietan aurkezten dizuegun galdetegiak, planteatutako galderari erantzuna emateko kontuan hartu beharreko gaiak aurkezten ditu. Galdetegiak gaiaren inguruko gogoeta bideratzea du helburu, ez da inondik inora zehatz-mehatz jarraitu beharreko gidoi bat; hori zuen irizpidera uzten dugu.

Besterik gabe, metodologiari edo galdetegiari buruzko edozein zalantza edo iruzkin izan ezkerro mesedez jarri zaitetz gurekin harremanetan.

8.1.2 Galdera sorta

LISBOAKO ESTRATEGIA ETA LAN MERKATUA¹:

Europako Batasunetik planteatzen ari diren Lisboako estrategian, ezagutzaren gizartean oinarritutako ekonomia lehiakorra eta dinamikora saltoa egitea planteatzen da. Eta horretarako sektore horietan (ezagutzaren eta teknologia berrien sektoreetan) enpresen lehiakortasun handitzeko politikak martxan jarri beharko dituzte estatuek. Aldi berean, ekonomiaren

¹ Lisboako estrategian, 2000-2010 hamarkadarako helburu ekonomiko estrategikoak finkatzen dira. Horrela laburbiltzen dute Europako Batasunak landuko duen estrategia:

“convertirse en la economía basada en el conocimiento más competitiva y dinámica del mundo, capaz de crecer económicamente de manera sostenible con más y mejores empleos y con mayor cohesión social” (Conclusiones de la presidencia. Consejo Europeo de Lisboa 23 y 24 de marzo de 2000. HYPERLINK "<http://www.consilium.europa.eu>" www.consilium.europa.eu)

Horretarako, administrazioen aldetik hainbat neurri hartzea proposatzen dituzte:

“...

- Creación de una zona europea de investigación e innovación
- Creación de un entorno propicio para el inicio y el desarrollo de empresas innovadoras, PYME en particular
- Reformas económicas para el logro de un mercado interior acabado y plenamente operativo
- Mercados financieros eficaces e integrados.
- Coordinación de las políticas macroeconómicas: saneamiento presupuestario, calidad y sostenibilidad de las finanzas públicas.
- Educación y formación para la vida y el trabajo en la sociedad del conocimiento
- Más y mejores empleos para Europa: desarrollo de una política activa de empleo.
- Modernización de la protección social.
- Promover la integración social...” (Conclusiones de la presidencia. Consejo Europeo de Lisboa 23 y 24 de marzo de 2000. HYPERLINK "<http://www.consilium.europa.eu>" www.consilium.europa.eu)

hazkunde fase horri ingurugiroarekiko errespetua eta lan baldintzen hobekuntza eta kohesio soziala lortzearen helburuak atxikitzen dizkiote.

Lan merkatuaren behin behinekotasuna hizpide dugun garai hauetan, nola ikusten duzue uztartu daitezkeela enpresen lehiakortasuna eta lan baldintzen hobetzea?

Lan merkatuaren baitan Lisboako estrategiak bi aldaketa nagusi planteatzen ditu; bata, lanpostuen kalitateari dagokiona, eta bestea, lanpostuen kualifikazioari edo ezaugarriei dagokiena...

- LANPOSTUEN KALITATEA

- Lanpostu berriak sortzea
- Egonkorragoak (enplegu osorako politikak, epe luzerako enplegu politikak...)
- Langabezia estrukturala gairatzeko politikak...
- Bazterketa arrisku gehien duten kolektiboak ere barnebiduko dituenak (emakumeak, gazteak, adineko langabetuak, etorkinak...)

- LANPOSTUEN KUAIFIKAZIOA

- Ezagutza eta informazioaren industria bultzatu.
- Enpresen teknologia berrikuntza
- Hezkuntza zientzia, berrikuntza eta ikerkuntzara bideratu.
- Titulazio berriak txertatu lan merkatuan.
- Lanbide prestakuntza berriak.

Nola ikusten duzue Baiona-Donostia euro-hiriaren inguruetakoa lan merkatua? Erronka horiei aurre egiteko moduan? Horretarako zein aukera eta zein zailtasun topatzen dituzue?

BAIONA-DONOSTIA EURO-HIRIKO GUNEAN; LAN MERKATUAREN EBOLUZIOA

Aurreko puntuan aipatu ditugu Europako Batasunetik datozen aireek zein norabidetan jotzen duten. Baina nolako da barneko faktoreek irudikatzen duten lan merkatua?

Euro-hiriaren proiektua gorpuzteko prozesuak aldaketak eta aukera berriak ekarriko ditu iparraldeko zein Hegoaldeko lan merkatuan: zerbitzu eta azpiegitura berriak, herritarren mugikortasun handiagoa, etab. Aldaketa horiek zein eragin izan dezakete lan merkatuan? Lan munduan ere mugikortasun joerak areagotzea ekar al dezake?

Etorkizunean erakargarria izango al da mugaz bestaldean lan egitea? Soldata ezberdinak, eskubide ezberdinak, kotizazioak... hauek guztiak kontuan hartuta?

Non sortuko dira aukera nagusiak? Zein sektore eta/edo esparrutan?

Mugaz beste aldean lan egiterako zein zailtasunekin topatuko dira gazteak? Bateragarriak izango al dira kontratazio motak?

Gai izango al dira estatu biak planteatzen dituzten erreformetan langileen mugikortasuna errazten?

Epe ertainean ekonomiaren bilakaerak lagunduko al du horretan?

BAIONA-DONOSTIA EURO-HIRIKO GUNEAN; FORMAZIO ETA KUALIFIKAZIO PREMIAK

Komunikazioaren gizartera eta teknologia berrietara bideratutako lan merkatua eta mugaz bestalderako mugikortasuna areagotzeko aukerak dituen aipatu dugu.

Erronka berri horiei aurre egiteko formakuntza eta kualifikazio aldetik prestatua al dago egun lan merkatua?

Norabide horretan aurrera egiteko zein premia eta arazo izango ditugu etorkizun hurbilean?

Mugaz bi aldeetako formazio eskaintza osagarriak izateko zein aukera daude, eta zein arazo?

Bi estatuen formazio eskaintza bateragarria izan daiteke?

ONDORIO NAGUSIA

Herritarrentzat aukera bideragarria (formazio eta lan baldintzen aldetik) eta erakargarriagoa (beste aukeren artean, kanpora joan behar izatearena adibidez) izango al da mugaren beste aldean lan egitea?

*Lan mugikortasunari buruzko delphi azterketa
Baiona-Donostia euskal euro-hiriaren baitan*



Euskal Herriko ekonomia eta gizarte garapenerako behategia
Observatorio para el desarrollo socio-económico de Euskal Herria
Observatoire pour le développement économique et social du Pays Basque

Martin Ugalde Kultur Parkea · 20140 Andoain · www.gaiendegia.org · Tel. +34 943 304 365

Diruz lagundua:



LEHENKARIITZA
PRESIDENCIA

R E G I O N



AQUITAINE